



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES



ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA
(2022-2036)

Partaidetza- prozesuaren memoria

Aurkibidea

- 1.- Gauzatutako partaidetza-prozesuaren azalpena
- 2.- Eragileengandik jasotako iritzi eta ekarpenak
 - 2.1.- Iritzi eta ekarpen orokorrak
 - 2.2.- Udalen iritzi eta ekarpenak
- 3.- Itunaren behin betiko dokumentuan txertatutako ekarpenak
- 4.- Ondorioak

1

Gauzatutako partaidetza-prozesuaren azalpena

Testuingurua. Zergatik Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala?

Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren proiektuak (2022-2036) hiru egoerari eman nahi die erantzuna:

1.- BEHAR SOZIALA

Euskal biztanle askok etxebizitza arrazoizko prezioan lortzeko zailtasunak + Behar sozialak (irisgarritasuna, zahartzea) eta energiaren eta klimaren erronka ikusita birgaitze-erritmoa handitzeko premia.

2.- ETXEBIZITZARI LOTUTAKO GARAPEN JASANGARRI BERRIAN SAKONTZEKO EGOKITASUNA

Garapen/Ekitate soziala + Enplegua eta jarduera ekonomikoa + Jasangarritasuna.

3.- LANKIDETZAN ETA ALIANTZETAN OINARRITUTA EPE LUZERA LAN EGITEAREN EGOKITASUNA, Nazio Batuen 2030eko Agendako 17 GJHetan ezartzen denari ildotik.


Zertarako da Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala (2022-2036)?

- **HELBURUA** ⇒ Etxebizitzaren inguruan **herrialde-mailako xede eta helburu batzuk adostea, baita epe luzerako —15 urte— lehentasunezko jarduera-ildo batzuk ere, eta helburu horiek lortzen kasuan kasuko eragile guztiak sartzea**, erakunde eta enpresetakoak, gizartekoak eta ezagutzakoak.
- **Dokumentu bat baino gehiago da. Prozesu bat** izatea nahi dugu⇒ Nagusiki partaidetzan oinarritutako lan-prozesu bat izatea nahi dugu, eta, haren bidez, eragile guztiak, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, helburu partekatuekin ezin hobeki lerrokatutako politika, programa eta proiektuak eraikiz joatea; alegia, batez ere lankidetzaren printzipioa nagusi duten politika, programa eta proiektuak.



Nola antolatu da Ituna eraikitzeko prozesua?

Fase hauek izan ditu Ituna eraikitzeko prozesuak:



Bi fasetan antolatu da eragileen partaidetza:

1.- HASIERAKO PROPOSAMEN ESTRATEGIKOA ERAGILEEI AURKEZTEKO TAILERRAK ETA BILERAK

Eragileen kategoriak zehaztu ondoren, guztira **8 tailer eta 7 bilera antolatu dira Ituneko elementu nagusien hasierako proposamen estrategikoa aurkezteko**. Tailerrek 2 orduko iraupena izan dute, eta eskema honetan oinarrituta gauzatu dira:

- Lehenengo zatian, Sailak hasierako proposamen estrategikoa aurkeztu du, elementu hauekin:
 - Helburua eta xede kuantitatiboak.
 - Lehenengo jardueraren ildo eta -jarraibideak.
 - Partaidetza-, lankidetzaren eta gobernantza-eredua.
- Hasierako proposamen estrategikoari buruzko galderetarako tartea.
- Proposamen horren inguruko edozein hausnarketa edo ekarpen egiteko tartea.

Tailerak telematikoki egin dira, jende gehiagok parte hartu ahal izateko.

Gainera, bilera txikiagoak egin dira EUDELekin, hiru euskal hiriburu eta etxebizitzaren eta hiri-antolaketaren arloarekin erlazionatutako zinegotzigoekin, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaian ordezkaturik dauden gizarte-eragileekin (Confebask, UGT, CC.OO), Mahaian ez dauden sindikatuekin (ELA eta LAB), hiru foru-aldundietako ekonomia-sustapeneko sailekin, eta foru-aldundietako ogasun-sailekin, Euskadiko Zerga Koordinazioaren Organoaren bidez. Halaber, prozesuaren hasieran, barne-izaerako informazio-bilera bat egin zen Eusko Jaurlaritzako sailekin eta erakundeekin.

Gonbidatutako 178 eragileetatik, guztira **97k (bakarrak) hartu dute parte tailer eta bilera horietan**.

2.- HASIERAKO PROPOSAMEN ESTRATEGIKOARI BURUZKO IRITZI ETA EKARPENAK BILTzea

Tailerak eta bilera amaitu ondoren, dokumentazioa bidali zaie eragileei (hasierako proposamen estrategikoa eta diagnostikoaren lan-koadernoak), online inprimaki batekin batera, dokumentazio osoa aztertu ondoren ekarpenak idatziz egin ahal izateko. 3 elementu nagusi zituen inprimakiak:

- Alde batetik, hasierako proposamen estrategikoko elementuen egokitasunaren balorazioa.
- Bestetik, ñabardurak edo ordezkari proposamenak txertatzeko espazio ireki bat.
- Azkenik, Itunaren zati aktibo izateko eragileen aurretiko joera ezagutzeko azken atala.

Hiria birgaitzeko hirigintza-sozietaterik ez duten udalei dagokienez, dokumentazio bera bidali zaie, baina online inprimaki sinplifikatu bat.

Guztira, 45 eragilek erantzun diote inprimaki orokorrari, eta 42 udalek inprimaki espezifikuari.

Eragileekin egin diren tailerrak

Taldea	Tailerraren data	gonbidatutako eragile-kop.	parte hartu duen eragile-kop.
Hiria birgaitzeko hirigintza-sozietateak / udaletako etxebizitza-erakundeak	Apirilak 5	29	14
Enpresa-elkarteak eta klusterrak	Apirilak 5	20	9
Profesionalen elkargoak / Bitartekotza-eragileak/ Kudeatzaile profesionalak	Apirilak 6	21	9
Espezifikoki etxebizitzarekin erlazionatutako gizarte- eta herri-elkarteak	Apirilak 6	13	3
Finantza-erakundeak	Apirilak 26	13	11
Finantza-tresna berriak / Higiezineta inbertsioak kudeatzen dituzten eta dauzkaten erakundeak	Apirilak 27	18	7
Balio erantsiko beste gizarte- eta herri-elkarte batzuk	Apirilak 27	34	17
Unibertsitateak eta zentro teknologikoak	Maiatzak 3	6	3

Eragileekin egindako bilerak

Taldea	Bileraren data	gonbidatutako eragile-kop.	parte hartu duen eragile-kop.
Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeak	Martxoak 29	11	11
Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaian ordezkatuta dauden gizarte-eragileak	Apirilak 26	3	3
Elkarrizketa Sozialerako Mahaian ez dauden sindikatuak	Maiatzak 16	2	2
Euskal hiriburuak, etxebizitzarekin erlazionatutako zinegotzigoak	Maiatzak 19	3	3
Udalerrak (EUDEL)	Ekainak 1	1	1
Foru-aldundietako ekonomia-sustapeneko sailak	Maiatzak 3	3	3
Foru-aldundietako ogasun-sailak, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren (EZKO) bidez	Uztailak 12	4	4

2

Eragileengandik jasotako iritzi eta ekarpenak

Eragileengandik jasotako iritzi eta ekarpenak

Jarraian, eragileengandik jasotako iritzi eta ekarpenak daude, 2 bloketan banatuta:

- Iritzi eta ekarpen orokorrak.
- Udalen iritzi eta ekarpenak.

Bildutako ekarpenak hitzez hitzekoak dira gehienetan. Luzeegiak zirenak soilik laburtu dira.

2.1

Iritzi eta ekarpen orokorrak

Jasotako Galdetigeak

- Abanca Corporación Bancaria SA
- ACEDE - Etxeko klusterra
- Ametsak Sortzen
- Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkarte
- Arenhos Advisors
- ASCONGI-ADEGI - Gipuzkoako Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkarte
- Aubixa Fundazioa
- Banco Santander
- Basauriko Udala
- Bilboko Udala (Etxebizitza Arloa)
- Bizitegi Elkarte
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoa
- Caritas Bizkaia
- Debegesa
- DELAGALA etxe-agentzia (Bizkaiko Higiezinaren Jabetzako Agenteen Elkargoko Zuzendaritza Batzordeko kidea)
- Eguzkilore Fundazioa
- EHKB - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna
- ELA Sindikatua
- Elkartean – Euskadiko Desgaitasun Fisikoa Duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea
- Eraikuntzako Lan Fundazioa
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Dekanotza Autonomikoa
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
- Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV) – Etxebizitza Publikoan Masterra
- Euskofederpen - Euskadiko Pentsiodunen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa
- FEKOOR - Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea
- FEVAS Plena Inclusión Euskadi
- Grupo Eibar
- H-ENEA Living Lab_Etxeko klusterra
- HIRUKIDE - Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarteen Federazioa
- Ibercaja Banco
- Immigrazio eta Asilo Foroaren Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea*
- IRUNVI
- Kaleratzeak Stop Desahucios Araba
- LAB Sindikatua**
- Laboral Kutxa
- Lekeitioko Udala
- Mondragon Unibertsitatea
- Neinor Homes
- Q- Living Property Investments
- Udal Hirigintza Elkarte Ensanche 21 Zabalgunea
- SURADESA
- SURBISA
- Triodos Bank
- Vitoria-Gasteizeko Udala

(*) Erantzun bateratu bat bidali du Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroko (Immigrazio eta Asilo Foroa) Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordeak. Batzorde horrek, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan immigrazioaren arloan lan egiten duten elkarteak hartzen ditu barnean.

(**) LABek hasierako proposamenaren inguruko ekarpenak egin ditu, baina ez galdetegiaren egiturari eta galderei jarraikiz. Haren ekarpenak memoria honetan jasota gera daitezzen, lotura gehien duten galdetegiko ataletan sartu dira.

1- ITUNAREN EGOKITASUN OROKORRA

Zein neurritan iruditzen zaizu egokia Etxebizitzaren aldeko Itun Sozial bat lortzea Euskadin?

Oso baxua edo batere ez	%2
Baxua	%0
Altua	%36
Oso altua	%61

Planteatutako denbora-horizonteari dagokionez (2036), nola baloratzen duzu?

Egokia	%56
Ez oso egokia, zabalegia iruditzen zaidalako eta denborazko irismen txikiagoa proposatuko nukeelako.	%42
Ez oso egokia, laburregia iruditzen zaidalako eta denborazko irismen handiagoa proposatuko nukeelako.	%2

Itunari dagokionez, Etxebizitza Sailburuordetzak egiten duen hasierako proposamenaren elementu hauekin zein neurritan zaude ados?

	Oso baxua	Baxua	Altua	Oso altua
Helburu edo helburu handiak eta epe luzerako lehentasunezko jarduera-ildoak adosteko ikuspegi orokorra, eta horiek lortzearen inguruan eragile garrantzitsu guztiak inplikatzeari	%0	%2	%52	%45
Hasierako dokumentuari zein lan-prozesuari garrantzia emateko ideia, horren bidez Itunean zehaztutakoa garatu beharko baita	%0	%5	%49	%47

Zure ustez, hasierako proposamenean jasota al daude Itunaren parte izan beharko luketen eragileen tipologia guztiak?

Bai	81%
Ez	19%

2- HELBURUAK ETA XEDEAK

Zer neurritan zaude ados Itunaren helburu nagusia ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA, ESKUBIDE-ERAGINKOR GISA ADOSTEA izatearekin?

Oso baxua edo batere ez	%0
Baxua	%9
Altua	%40
Oso altua	%51



ÑABARDURAK

- 1) Prozedurak bizkortzea; 2) Eraikuntzarako zerga-pizgarriak ematea; 3) Legeria aldatzea, burokrazia saihesteko (**Abokatuen Elkargoa / Barrilero y Asociados abokatu-langela**)
- EAEk erabateko eskumena duenez etxebizitzaren arloan, uste dut “dagoen ondare eraikia” lehentasunezko xede gisa hartzea proposamena bezain funtsezkoa dela (**SURBISA**)
- Etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzea, etxebizitzaren irisgarritasunaren pertsonalizazioa kontuan hartuta (bainugela, arkitektura-oztopoak desagerraraztea, higiezinerako sarrera) eta dibertsitate funtzionala duten erabiltzaileen berezitasunei erreparatuta (**FEKOOR**)
- Beharrezko irisgarritasun-baldintzak betetzen dituen etxebizitza-parkea bermatzen aurrera egitea (**Elkartean - Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea**)
- Helburu nagusia, oro har, ikuspegi edo xede gisa emanda dago. Nola ez, “utopikoa” da. Aurkeztutako txostenak helburu operatiboagoak, partzialagoak eta ebaluagarriagoak dakartza, urtero berrikusi eta ekintzak doitu ahal izateko. (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Uste dut garrantzitsua dela nabarmentzea beharrezkoa dela kontuan hartzea etxebizitzarako eskubidea eskubide egonkorra bada eta banako bakoitzaren egoerara egokituta badago soilik jo daitekeela eraginkortzat (**Euskadiko Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Dekanotza**)
- Gazteentzat alokairuko etxebizitza duina, arrazoizko prezioan (**Arabako Arkitektura Teknikoko Elkargoa**)
- Etxebizitzarako eskubideak era batera edo bestera etxerik gabe daudenengana iritsi behar du (**Bizitegi Elkarte**)

- Etxebizitza egokia, jasangarria, irisgarria, inklusiboa eta arrazoizko preziokoa izateko eskubide eraginkorra. Helburu handiaren banakapena: Dauden etxebizitzaren kalitatea hobetzea; etxebizitza egokiak, jasangarriak eta arrazoizko preziokoak lortuko direla bermatzea, guztiak hiri-eremu egokian, irisgarrian eta inklusiboan kokatuak. Zehaztasunak: Higiezin merkatua eraginkorra eta orekatua izango dela ziurtatzea, eta egoera ahulean dauden edo babes berezia behar duten taldeei etxebizitzarako eskubidea bermatzea: ikasleak, 35 urtetik beherakoak, adinekoak, desgaituak, genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimak, talde kulturalak edo etnikoak, istripu edo hondamendi natural baten ondorioz etxebizitzarik gabe geratu diren pertsonak, etab. (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna - EKB**)
- Etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea (**Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala**)
- Oso garrantzitsua iruditzen zaigu ITUN horretan FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUAREN SISTEMA kontuan hartzea ETXEBIZITZA-POLITIKA osoan. Nahiz eta etxebizitza erosteko edo birgaitzeko laguntzen arauetan diru-sarrerak haztatu, bizikidetzaren unitatean 7 kide baino gehiago daudenean soilik haztatzen da erretoa. Gauza bera gertatzen da "Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programan, eta, gainera, 6ra mugatzen du esleipen-lehentasuna ezartzeko kide konputagarrien kopurua. Bestalde, etxebizitza alokatzeko gazteentzako laguntzetan, ez da kontuan hartzen ez errentaren inolako estandarizaziorik (eta, beraz, ez da betetzen Familiei Laguntzeko abenduaren 18ko 13/2008 Legean araututako sistema), ez inolako haztapienik laguntzen eskatzailea bakar, familia-unitatea edo familia ugaria izan, ezta alokairurako laguntzaren zenbatekoa ere, pertsona batek behar duen azalera ez baita kide gehiagoko familia batek (hots, familia ugariak) behar duenaren berdina. ZERGA-POLITIKARI dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaigu familia ugarietako zerga-kreditua handitzea etxebizitza erosteagatiko kenkarietan, gaur egun 36.000 eurokoa baita pertsonako eta bizitza osoan zehar, beste edozeinentzat bezainbestekoa, nahiz eta familia ugariak azalera handiagoa duten eta, ondorioz, garestiagoak diren etxebizitzak behar izan. Etxebizitza alokatzeagatiko kenkarian ere muga handitzea, arrazoi beragatik. Eta, azkenik, beharrezkoa iruditzen zaigu gobernuak AZALERA HANDIAGOKO ETXEBIZITZAK DISEINATZEKO konpromisoa hartzea; izan ere, gaur egun familia ugarien % 18 baino gehiago infraetxeetan bizi dira edo ohiko etxebizitzak gehiegi betetzen ari dira, eta dauden sustapenak (EJrenak edo udalenak) ez dituzte eskaintzen bizigarritasun-baldintza betetzeko (15 m² pertsonako) beharrezko azalera duten etxebizitzak. Adib.: 6 kideko familia ugari batek 90 m²-ko etxebizitza bat du; gaur egun, ordea, ez da ezaugarri horiek dituen etxebizitzarik eraikitzen (etxebizitza guztiak azalera txikiagokoak dira), eta, ondorioz, ezin dute etxebizitza duina lortu eta, beraz, ezta etxebizitzaren legeak ezartzen duen eskubide subjektiboa berenganatu ere (**HIRUKIDE**)
- Eskubidearen eraginkortasuna: beharbada hobeto zehaztu behar da modu unibertsalean, mugatuan edo hondarrezkoan egingo den eraginkorra. Horrela, argiago egongo da ea egoera ahulean daudeneztat, batez besteko erretoa duteneztat edo denentzat izango den eskubidea eraginkorra (**Arenhos Advisors**)
- Etxegabetasuna jasotzea, nahiz eta nagusia ez izan (**Caritas Bizkaia**)
- Etxebizitzarako eskubideak GUZTIENTZAT izan behar du eraginkorra. Hala ere, funtsezkoa da Itunak desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen beharrak agerian jartzea, baita laguntza handia behar dutenak ere. Eskubide hori bermatzeko, etxebizitza irisgarriak, inklusiboak eta arrazoizko preziokoak jarri behar dira talde horren eskura. Horren harira, Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko NBERen Konbentzioak hau aitortzen du 19. artikuluan: "Modu independentean bizitzeko eta erkidegora biltzeko eskubidea. Konbentzio honetako estatu alderdiek aitortzen dute pertsona desgaitu guztiak baldintza berberetan eskubidea izatea erkidegoan bizitzeko, gainerakoek aukera berberetan, eta neurri eragingarri eta egokiak hartuko dituzte, pertsona desgaituek eskubide hori oso-osoan izan dezaten eta pertsona horiek erkidegora bil daitezten, eta bertan parte har dezaten" (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)
- Etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor eta benetako gisa finkatzea, indartzea, bizkortzea..., pertsona kontuan izanda eta herritarren aniztasunei garrantzia emanda. Ez egokitu pertsona etxebizitzara, baizik eta etxebizitza pertsonara: sarreran eta eskaileretan, bainugeletan eta korridorean arkitektura-oztopoak kentzea, laguntza teknikoak ematea, komunikazioan irisgarritasuna bermatzea (**FEKOOR**)
- Nire ustez, definizio hau anbiguo samarra da. "Eratzea" hitzak ez dit ondo jotzen (**Fundación Laboral de la Construcción**)

- Helburua Euskadin etxebizitza nahikoak egotea izan behar litzateke, bizitegi-eskaintza zabala egon dadin, bai etxebizitza libreena eta babestuena, bai salgai eta alokairuan (aldaera guztietan), baina garapen ekonomikoko helburuekin bat datozen biztanle-helburu batzuk kontuan izanda (edo zehaztuta): familien sorrera, jaiotze-tasa eta immigrazioa (**Neinor Homes**)
- Itunaren izenean zehaztea eskubide eraginkorra ez dela doakotasunaren sinonimo (**Q-Living Property Investments**)
- Politika eraginkorrak eta tresna arautzaile eragingarriak eta malguak, etxebizitza-ekoizpena dinamizatzeko, etxebizitza-eskariari erantzute aldera (**ASCONGI-ADEGI**)
- Helburua ezin da izan etxebizitzarako eskubidea eratzeko prozesua bizkortzea, baizik eta eskubide hori benetan eratzea (**Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea**)
- Etxebizitzarako eskubidea, eskubide subjektibo gisa adostu behar da. Legeak hori esaten du. Eraginkorra bai, baina subjektiboa lehenago. (**ELA Sindikatua**)
- Etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzearen esparruan, eskubide hori gauzatzera bideratutako laguntza publikoetako politiken onuradunen erantzukizunak ere ezagutarazi behar lirateke (**Gasteizko Udala**)
- Aldi baterako etxebizitza irisgarria, lan bila egindako joan-etorriengatik. Behar duenak froga dezakeena (**DELAGALA etxe-agentzia**)

Zer neurritan zaude ados 2036an alokatzeko eskaintza publikoa Euskadiko etxebizitza nagusien %5ean egotearen xedearekin, alokairuko etxebizitza eskuragarrien parke publikotik 26.000 etxebizitzatik 50.000 etxebizitzara pasatuta?

Oso baxua edo batere ez	%2
Baxua	%10
Altua	%57
Oso altua	%31



ÑABARDURAK

- 1) Ez dago lurzoru publikorik salgai; 2) Errentamendu-legeak hobetzea (**Abokatuen Elkargoa / Barrilero y Asociados abokatu-langela**)
- Horretan lanean egongo zaretela suposatzen dut. Alokairu etxebizitza horiek eraikin berriak izatea edo herrietan dauden etxebizitza "hutsak" edo erabiltzen ez direnak izatea oso desberdina dela uste dut. Gizartean lan handia egin behar dela uste dut etxebizitza hutsen jabeak direnak, etxebizitza horiek alokairurako erabilgarri jar ditzaten konfiantza osoz. (**Lekeitioko Udala**)
- Pentsatzen dut horretan lanean ari zaretela. Uste dut oso desberdina dela alokairuko etxebizitza horiek eraikin berriak izatea edo herrietan dauden eta erabiltzen ez diren etxebizitza "hutsak" izatea. Nire ustez, lan handia egin behar da gizartean etxebizitza hutsen jabeek konfiantza osoz utz ditzaten alokairuan jartzeko (**Lekeitioko Udala**)
- Asmo handiko helburu bat dela iruditzen zait. Bistan denez, xedea lortzeko eskaintzen diren baliabide ekonomiko eta teknikoaren arabera egongo da emaitza. Dagoena ia bikoiztea ekarriko luke horrek, baina, horretarako borondate politikoa baldin badago, erdiesteko moduko helburua da. Oso ondo iruditzen zait jarduera-ildo bakoitzerako ezarritako helburuak kuantitatiboki zehaztea (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Alokairuko etxebizitzaren sustapenak haiek esleitzeko eta kontserbatzen eta zaintzen direla gainbegiratzeko neurri egokiak ekarri behar ditu berekin, etxebizitzan bizi diren pertsonen, etxebizitzaren titularrak ez direlako, hura zaintzeari utz ez diezaioten, horrek etxebizitza leheneratzeko gastu publikoa areagotuko lukeelako eta, gainera, arrazoizko prezioan dagoen alokairuko etxebizitza-parke publikoaren kalitatea eta kantitatea murriztuko lukeelako. Horrela, nahiz eta hasiera batean halako etxebizitzak aldi baterako esleitu diren, kontratuak mantentzeko aukera ere aurreikusi behar litzateke, baldin eta esleipendunek era horretako etxebizitza baten onuradun izateko baldintzak betetzen jarraitzen badute; izan ere, etxebizitza batean luzaroan eta modu egonkorrean biziak haren, instalazioekiko eta biztanlegunearekiko erantzukizun eta lotura handiagoa sortzen du (**Euskadiko Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistrazioaren Dekanotza**)
- Portzentai haundiagoa egokiagoa litzateke (**AUBIXA Fundazioa**)
- "Okupa" mugimenduak gaur egun ziurgabetasun eta ahultasun juridikoa eragin duenez eta hari aurre egin nahi zaionez, Administrazioak arduratu behar du merkatuan alokairuko etxebizitza-eskaintza ziurtatzeaz (**Laboral Kutxa**)
- %5 batekin ez gara heltzen Europako batzuekin, %7,5koa dela. Are hurrunago Europako beste herrialde batzuekin (Herbeherak %34, Austria %23, Frantzia %14,...). Etxebizitzaren gaian, gure konparaketa ezin da espainiar estatuarekin egin. Arlo honetan aurreratuago dauden herrialdeekin egin behar da. Babestutako etxebizitza guztiak alokairuzkoak beharko lukete izan, ez jabe goan edo alokairuan. (**ELA Sindikatua**)

- Ados, parke publikoa handitu behar litzateke. Ez dakigu proposatutako portzentajeak benetako beharrari erantzuten dion. Ez dago daturik beste portzentaje bat proposatzeko (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna - EKB**)
- Lehen esan dugun bezala, alokairuen eskaintzen diren etxebizitzak azalera askotakoak izatea, kide gehiagoko familia-unitateen beharrei erantzun ahal izateko (familia ugariak); horrez gain, kostuen zenbatekoa familia-errenta estandarizatuaren sistemari lotuta egotea, pertsonen errenta erabilgarria kontuan hartuta. Horrez gain, PFEZean alokairugatikoen kenkariaren zenbatekoa handitzea familia ugariei dagokienez, beste pizgarri bat pertsonen aukera horren alde egin dezaten (**HIRUKIDE**)
- Gazteentzat etxebizitza publikoan dauden kupoak mantentzea edo handitzea eta erraztasunak ematea. (**Euskadiko Gazteriaren Kontseilua - EGK**)
- Beharbada zehaztu egin behar litzateke zenbat izango liritekeen publikoak eta zenbat pribatuak, eta lehenengoen artean zenbat izango liritekeen lankidetzakoak (**Arenhos Advisors**)
- Etxerik gabeko pertsonen kopurua murriztea Etxebizitzaren ikuspegi sozialari buruzko xedeak txertatzea (**Caritas Bizkaia**)
- Kopuruak berak ez du eskubidea bermatzen. Eskaintza eskaria adinakoa izan behar da; horrenbestez, behar diren etxebizitzak. Kontuan izan behar da % 5 ez dela gauza bera gaur edo 2036an; hortaz, behar adina etxebizitza izan behar da irizpidea. Edonola ere, proposatutako kopurua Europako batezbestekoa baino txikiagoa da, dauden etxebizitzak % 9koa baita. Datuak taldeka segmentatu behar dira, balorazioa egiteko eta beharrak egoki aztertzeko. Desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak ikusgai jarri behar dira, eta beste eredu edo parametro batzuetara joz dauzkaten beharrak berrikusi. Batzuetan pentsatzen da pertsona horiek familiarekin bizi direla eta ez da kontuan hartzen independizatu nahi dutenik. Desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna horrela ulertzea oztopoa da etxebizitza bat lortzeko orduan (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)
- Arrazoizko prezioa duten alokairuko etxebizitzak merkatua behar da, eta beharrezko egokitzapen-lanak egin behar dira irisgarriak izan daitezen (**FEKOOR**)
- Ezin dut ezer esan datuei buruz, baina uste dut gizarte- alokairuaren formulara bideratu behar dela etxebizitza soziala lortzeko bidea (**Fundación Laboral de la Construcción**)
- Oraindik urrun gaude alokairua arrazoizko prezioan lortzeko Europako beste herrialde batzuetan dauden kopuruetatik. Alokairu librea ere oso mugatuta dago. Eta murrizteko joera du. Gaur egungo merkatuko beste eredu batzuk iraupen luzeko alokairuari ere lekua kentzen ari dira (**EHU - Etxebizitza Publikoan Masterra**)
- Kopuru horrek gaur egungo ekoizpen-erritmoa bikoiztea dakar berekin, baina, nahikoa den ebaluatu ahal izateko, Euskadiko hazkunde demografikoarekin eta etxebizitza-beharrekin erlaziozko helburuak aztertu behar liriteke lehenik (**Neinor Homes**)
- Zentzuzkoa da, 14 urtean 24.000 etxebizitza egitea ezinezkoa baita. Kopuru horretatik gora ez litzateke bideragarria izango (**Q-Living Property Investments**)
- Ezinezkoa izango da, sustapen-sektorearen irizpidea kontuan hartzen ez bada, eragiketen errentagarritasuna bermatzen ez bada eta ekoizpenerako pizgarriak ematen ez badira (**ASCONGI-ADEGI**)
- Arrazoizko prezioan alokatzeko 24.000 etxebizitza berrien jatorria zehaztu behar litzateke agian: birgaituak, eraikuntza berria, etxebizitza hutsak... (**Gasteizko Udala**)
- Horrek duen zailtasuna ikusita, asmo handiagoko xedea jarriko nuke (**Bilboko Udaleko Etxebizitza Saila**)
- Eskaintzak laneratzera bideratuta egon behar du; ez dira kontuan hartu behar dibortziatzen direnen aurreko errentak, baizik eta hitzarmen arautzaileak. Egoera ahulagoan dauden langileak hartu behar dira kontuan; adibidez, etengabe lanean ari direnak, ABLEetakoak edo etxe-zerbitzukoak (**DELAGALA etxe-agentzia**)

Etxebizitzaren prezioa eskuragarria izateko mugatzea, eta alokairua indartzea: Datuen arabera, egungo etxebizitzaren prezioa familia askoren ahalmen ekonomikotik oso urrun daude. Etxebizitza behar duen 18 eta 44 urte arteko jendeak hilean ordaintzeko duen ahalmena 2019an 506 euro ziren, hau da, EAEko batez besteko errentaren erdia. EAEn ia 100.000 lagunek izan nahiko lukete etxe bat, eta horietatik ia 80.000k ez dauka horretarako behar adina baliabide. Zailtasun gehien dute kolektiboen artean, emakumeak, gazteak eta pertsona arrazializatuak aurki ditzakegu. Soldata-arrakalak eragin zuzena du alokairua lortzeko aukeran. INEren datuen arabera, gizon eta emakumeen arteko soldata aldea 2019an 6.331 eurokoa zen EAEn. Soldata-arrakala EAEko 6 hilabeteko batez besteko errentaren adinakoa da.

Beraz, premiazkoak dira alokairuen prezioa mugatzeko neurriak eta merkaturaren esku hartzea. Horretarako bi estrategia nagusi daudelarik: alokairu sozial arautua bultzatzea eta merkatu libreko etxebizitzaren prezioa mugatzea. Alokairuan jartzen dugu arreta, izan ere, txosten eta azterketa ezberdinek azaltzen dute egoera kalteberenean dauden herritarrek direla alokairuaren alde egin behar dutenak.


Alokairu sozial publikoa arautua bultzatzea ez neurri subsidiario gisa, baizik eta etxebizitza politikaren zutabe bezala. Egun alokairu sozial arautua etxebizitza babestuari loturik agertzen zaigu, eta horretarako ere ez dago nahikoa parke publiko (lehenagoko puntuaren garrantzia berretsiz): 2019an alokairu babestuko eskariaren %1,62ri erantzun zitzaion, eta erosketako eskariaren %8,24ri.

Gainera, egun eskari hori "elkarlan publiko-pribatutik" erantzuten zaio eta hau finean higiezin-enpresa eta promotorei diru transferentzia bilakatzen da. Horregatik, eremu publikoaren aldeko plan estrategikoa berebizikoa da. Gaienera, bitartean, promotorei eta higiezin-enpresei ezartzen zaizkien baldintzak gogortu behar dira, maizterrak babesgabetasun egoeran geratzen ez direla bermatuz.

Horretaz gain, merkatu libreko etxebizitzaren prezioa mugatu behar da. Eta norabidea ezin da zan mugatze horrek errentatzaileentzat dakartzan galerak diru-publikoak finantzatzea (**LAB Sindikatua**).

Zer neurritan zaude ados 2036an BABES PUBLIKO IRAUNKORREKO ETXEBIZITZEN PARKEA, EUSKADIN DAUDEN ETXEBIZITZA NAGUSIEN %10,8ra iristea, 2021ean %7,7koa izanda, hau da, 70.000 etxebizitza izatetik, 108.000 izatera igaroz?

Oso baxua edo batere ez	%5
Baxua	%8
Altua	%62
Oso altua	%25




ÑABARDURAK

- EAEko biztanle-kopurua zenbat handitu den ikusita, beharrezkotzat jotzen da hori ere handitzea. Ez dago informaziorik, ezta datu objektiborik ere, proposatutako portzentajea egokia eta nahikoa den esateko. Proposatzen den hazkunde orok datu neurgarri eta benetakoetan oinarrituta egon behar du, eta EAEko eta Europaren inguruneke errealitate sozial eta ekonomikora pixkanaka egokitu (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna - EKB**)
- Garrantzitsua iruditzen zaigu erronka hau, baldin eta eskaintzen diren etxebizitzak pertsona guztientzat irisgarriak badira, bereziki familia ugariarentzat; izan ere, gaur egun, eskaintzen diren guztiak ez dira zozketetan parte hartzeko aukera ematen dieten azalerakoak, eta kanpoan gelditzen dira, behar dutena baino azalera txikiagoa dutelako, edo, zozketetan parte hartuz gero, ez zaie eskaintzen bizitzeko azalera duina (**HIRUKIDE**)
- Gizarteak etxebizitzarako eskubidea subjektiboa aitortzea (**Caritas Bizkaia**)
- Kopuruak berak ez du eskubidea bermatzen. Eskaintza eskaria adinakoa izan behar da; horrenbestez, behar diren etxebizitzak. Datuak taldeka segmentatu behar dira, balorazioa egiteko eta beharrak egoki aztertzeke. Desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak ikusgai jarri behar dira, eta beste eredu edo parametro batzuetara joz dauzkaten beharrak berrikusi. Batzuetan pentsatzen da pertsona horiek familiarekin bizi direla eta ez da kontuan hartzen independizatu nahi dutenik. Desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna horrela ulertzea oztopoa da etxebizitza bat lortzeko orduan (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)
- Kasuan kasuko egokitzapenak egin behar dira irisgarritasuna lortzeko (**FEKOOR**)
- Ezin dut iritzia eman datuei buruz, baina uste dut etxebizitza soziala erosteko aukera ez dela egokia etxebizitzarako eskubideari irtenbidea emateko. Aukera honetako inbertsioa murriztuko nuke, eta gizarte-alokairukoa handitu (**Fundación Laboral de la Construcción**)
- Ekimen pribatuaren bidez garatu behar lirateke, eta administrazioek horretarako lurzorua eman behar lukete, haien sustapena ekonomikoki bideragarria izateko moduan (**Neinor Homes**)
- Ez nago batere ados babes iraunkorarekin (**Q-Living Property Investments**)
- Etxebizitza babestuen benetako beharraren arabera izan behar da kopurua (**ASCONGI-ADEGI**)
- Ez gaude jabetzapeko etxebizitza babestuen alde. Gure proposamena argia da: etxebizitza babestu guztiak alokairuzkoak izan behar dira. Jabetzapeko etxebizitza babestuek ez dute kalifikazioa galtzen, baina pribatizatu egiten dira. Agian hasieran baldintzak betetzen dituztenek urte gutxira egoera ekonomiko oparoa dute eta etxebizitza horren erabilera filosofia galtzen da. (**ELA Sindikatua**)

- Helburu honek lehendik dagoen etxebizitza librea etxebizitza babestu gisa birsailkatzea lehenetsi behar luke, laguntza publikoen bidez birgaituta (**Gasteizko Udala**)
- Horrek duen zailtasuna ikusita, asmo handiagoko xedea jarriko nuke (**Bilboko Udaleko Etxebizitza Saila**)
- Herriak jendeztatu behar dira (**DELAGALA etxe-agentzia**)
- Etxebizitza parke publikoa handitzea: Horretarako tresna ezberdinak barnebiltzen dituen plan estrategikoa beharrezkoa da. Etxebizitza publikoa etxebizitza politiken zutabea bihurtu behar da promotorei eta higiezinpresei diru transferentzian oinarritzen den eredu "publiko-pribatua" alboratuz. Parke publikoa handitzeko ekimen zehatzak eta anbiziiodunak plangintzatu behar dira: lehentasunez erosteko eskubidearen inplementazio estrategikorako plan bat egitea (baita pertsona fisikoen kasuan, baldin eta etxebizitza kopurua handia den), banketxeen eta jabego handien esku dauden etxebizitzak tarte batez edo behin betiko desjabetu eta hauen funtzio soziala betearazteko neurriak garatzea, espekulazio inmobiliarioa zigortzen duten neurri fiskalak ezartzea, etxebizitza hutsak mobilizatzeko plan baten baitan, jabego txikien etxebizitzak mobilizatu eta alokairu publiko eta sozialera bideratzeko plan estrategikoak. Etxebizitza publikoarena aberastasuna birbanatu eta etxebizitzara sarbidea bermatzeko tresna izateaz gain, aukera bat izan daiteke eta izan behar da hirigintza-plangintzaren eredu bera zalantzan jartzeko. Hirigintza-plangintzak eta etxebizitza politika publikoak ahalbidetu behar du periferizazioari (etxebizitza publiko eta sozialak kanpoaldeko auzoetara bideratzea), gentrifikazioari eta segregazioari aurre egitea, eta horretarako etxebizitza politika mugikortasun, zerbitzu publiko eta bizigarriak diren herri/hirien estrategia planekin loturik egon behar da. (**LAB Sindikatua**).

Zein neurritan zaude ados GURE URTEKO BIRGAITZE-INDIZEA ERAIKINEN GUZTIZKOAREN %1,5ETIK URTEKO %3RA PASATZEAREN xedearekin?

Oso baxua edo batere ez	%0
Baxua	%19
Altua	%38
Oso altua	%43



ÑABARDURAK

- Nire ustez, helburuak tipologia desberdinetan zehaztea komenigarria litzateke: 60. hamarkako poligonoak, baserriak, alde zaharrak, herri txikiak... adibidez (**SUDARESA**)
- Birgaitze-jarduerak duen konplexutasuna dela eta, uste dut indize honek handiagoa izan behar lukeela, % 3,5 edo 4 (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- Nire ustez, gai hau bizkortu egin behar da, Europako funtsak eta 2030erako Agendaren beharrak aprobetxatuta; izan ere, premia larria da etxebizitzaren antzinatean, etxebizitza berria lortzeko beharrei eta merkatu librea garestitzen eta finantzaketa lortzea zailtzen ari den espazio-faltari buruzko emaitzetan oinarrituta. Etxebizitza asko daude hutsik, eta gizarte-alokairurako erabil daiteke, baina etxebizitza librea erosteko eskaria ere txikia da, higiezinaren egoera dela eta (**Triodos Bank**)
- Asmo handiagokoa izan behar luke, birgaitzeak etxebizitzaren irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzea esan nahi baitu (**Elkartean, Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea**)
- Nahiz eta urteko indizea bikoizten duen, uste dut oraindik ere eskasa dela, etxebizitzaren egoera erabakigarria baita erabilgarri jartzeko. Inbertsio handia egin behar da eraginkortasun energetikoan eta irisgarritasunean. Kontua ez da etxebizitza gehiago izatea soilik, baizik eta gaur egun dauden egoera ere hobetzea (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Helburu horretarako, apustu handiagoa egin behar da publikoa eta publikoaren koordinatzeko, baita laguntza ekonomikoaren prozedura sinplifikatzeko ere (**Debegesa**)
- Oso beharrezkoa da alderdi hori nabarmentzea, eta administrazioak eragile eta bidelagun izan behar du gai honetan (**Laboral Kutxa**)
- Horrela, bizigarritasun-baldintza onetan egongo dira herrietako guneko historikoetako etxebizitzak, maiz hutsik gelditzen baitira eta etxebizitza berriak prezio neurrigabeen truke egiteko putre-funtsen helburu bihurtzeko arriskuan baitaude (**EUSKOFEDERPEN**)

- EAEko biztanle-kopurua zenbat handitu den ikusita, beharrezkotzat jotzen da hori ere handitzea. Ez dago informaziorik, ezta datu objektiborik ere, proposatutako portzentajea egokia eta nahikoa den esateko. Proposatzen den hazkunde orok datu neurgarri eta benetakoetan oinarrituta egon behar du, eta EAEko eta Europaren inguruneko errealitate sozial eta ekonomikora pixkanaka egokitu (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna - EKB**)
- Premiari dagokionez, eta zenbait behar soziali aurre egiteko (irisgarritasuna, zahartzea, erronka energetikoa eta klimatikoa, etab.) etxebizitza gehiago birgaitu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da hauek egitea: - Laguntzak ugaritzea eta haien arteko bateragarritasuna handitzea, zenbateko handiagoak banatu ahal izateko. - Jarduna amaitu aurretik laguntzak lortzen laguntzea, edo haien lehenago lortzen laguntzea, laguntzak ematearen aldeko ebazpena jaso ondoren, edo finantza-tresna espezifikoak aplikatzea, birgaikuntzako esku-hartzeen finantzaketa hobetzeko, batez ere bizilagunen erkidegoetan. - Herri-mailako kontzientziazio-lana sustatzea eta, ahal den neurrian, laguntzen zenbatekoa handitzea, 3 ardatzetan: partikularrak, erkidegoak eta zerga-desgrabazioak. Laguntzak lortzen laguntzea eta, batez ere, lehenago lortzen laguntzea, partikularrek eta erkidegoek birgaitze-prozesua martxan jartzeko talka- eta motibazio-ekintza gisa. - Birgaikuntza-bulegoak sortzea (“leihatila bakarra”), birgaikuntza-prozesu osoan zehar laguntzen kudeaketa, finantzaketa eta fiskalitatea ahalbidetzeko esparru arautzaile bat ezarrita (**Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala**)
- Birgaikuntzan, beharrezkotzat jotzen dugu berriz ere FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUAREN sistema txertatzea, indarrean dagoen araudiarekin gehienez 7 kidera mugatzen baita haztapena (**HIRUKIDE**)
- Ez dakizkit datuak. Tasa bikoizteak positiboa dirudi (**Fundación Laboral de la Construcción**)
- Etxebizitza-parkea zahartzen ari da, eta agerian jartzen ari da haren eraikuntza-kalitate txikia (**EHU - Etxebizitza Publikoan Masterra**)
- Gure ustez, arlo honetan erdietsi beharreko helburuak asmo handiagokoa izan behar luke. Horrez gain, uste dugu gaur egungo parkea are gehiago hobetu behar litzatekeela eraginkortasun energetikoari dagokionez, pizgarri-politiken bidez (**Neinor Homes**)
- Ezin izango da, enpresa profesionalak eta esperientziarik eta ezagutza nahikorik ez duten eragileak bereizteko mekanismoak ezartzen ez badira. Obra berria eta birgaikuntza oso desberdinak dira, eta enpresak eta espezializazioa falta dira (**ASCONGI-ADEGI**)
- Birgaikuntzari dagokionez, Batzordeak uste du garrantzitsua dela diru-sarrerara gutxien dituzten komunitateak lehenestea (**Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea**)
- Interesgarria da birgaitzea, batez ere hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzerako orduan. (**ELA Sindikatua**)
- Agian asmo handiagoko helburu bat ezar liteke: % 3,5 edo handiagoa (**Gasteizko Udala**)
- Horrek duen zailtasuna ikusita, asmo handiagoko xedea jarriko nuke (**Bilboko Udaleko Etxebizitza Saila**)
- Handiagoa izan behar luke higiezinaren espekulazioari aurre egiteko eta lana sortzeko, eraikuntzaren sektoreak lan asko eman baitezake (**DELAGALA etxe-agentzia**)
- Etxebizitzak birgaitzea eta bereizketa soziala: Europako funtsen protagonismoak gaian sortutako kezka gain, kasu honetan NEXT GENERATION UE bidez, eta autonomia eta subiranotasun publikoa galtzeaz aparte, funtsezkoa iruditzen zaigu gogoeta egitea politika horietan zer biztanleria-sektore aintzat hartuko diren jakiteko. Etxebizitzak klima-kolapsoaren errealitatera egokitzea ezin da pertsonak jakin batzuek bakarrik eskura dezaketenen pribilegio bihurtu. Gainera, birgaitzeaz hitz egitean, etxebizitzaren hobekuntza energetikoaz gain, ezin dira ahaztu gaur egun egoera estruktural txarrean edota egoera ez bizigarrian dauden etxebizitzak, irisgarritasun faltarekin eta etxebizitza-politikan jasota egotea merezi duten segurtasun-bermerik gabe. (**LAB Sindikatua**).

Adierazi zure ustez Itunean sartu behar litzatekeen **BESTE EDOZEIN XEDE**

- Alde zaharretako birgaitze integrala garrantzitsua iruditu zait, lokalak eta etxebizitzak kontuan izanik(**SURADESA**)
- Beharbada kontuan hartu behar litzateke Itunaren esparruan trantsizio energetikoari eta isurien murrizketari lotutako xede bat (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- Desgaitasuna duten pertsonen etxebizitza duinak, egokiak eta irisgarriak lortuko dituztela bermatzea, Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioak aitortzen duen bizimodu independenterako eskubidea bermatzeko funtsezko elementu gisa (**Elkartean - Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea**)
- Egoera ahulean dauden eta gaur egungo parametroekin etxebizitza izatera iristen ez diren taldeekin lan egiten duten gizarte-erakundeekin lan handiagoa egitea. Erakunde horien eskura parke handiagoa jartzea, etxebizitzan eragin handiagoa izan dezaten. Baztertuta dauden pertsonentzako programan (gizarteratze-sarea, housing first, etab.), deigarria egiten zaizkit hain etxebizitza-kopuru eskasak (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak, ostaturik ez, garapen soziala ere eraginkortasunez eta modu koordinatuan sustatu behar du; horrela, etxebizitzaren ingurua bera ere hartu behar du barnean, eta egitura sozial bat bilatzen da biztanleria finkatzera eta bizitegi-guneak mantentzera bideratutako jardun espezifiko bakoitzean. Horrek sustraitze pertsonala eta giza garapena bultzatzen dituen sare eta egitura sozial eta ekonomiko zirkularra eta hurbiltasuneko eza dadin sustatzen du. Horrela, adibidez, funtsezko ondasun eta zerbitzuen hurbileko merkataritza ezartzen laguntzeko politikekin koordinatu edo lot daitezke, eta etxebizitzaren eskatzaile eta esleipendunei eurei kasu kasuko jarduna ahalbidetu. Edonola ere, biztanleriaren piramidearen bilakaera ikusita, Itun Sozialean ere sartu behar da etxebizitza eta hari dagokion ingurunea jardun bakoitzak helburu duen biztanleria-motarentzat egokiak izan behar direla; arau eta jardun zehatzek barnean hartu behar dituzte etxebizitzaren ezaugarri bereziak eta esleipendun gertatzen diren biztanleen tipologia, eta malgutzeko-irizpideak aurreikusitako behar dituzte (**Euskadiko Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Dekanotza**)
- Etxebizitza babestuetarako bizitegi-lurzoru urbanizagarriari buruzko jardunak (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – EKB**)
- 1) Alokairu librearen prezioak mugatzeko konpromezua. 2) Beste tipologia eta bizitzeko modu batzuk bultzatzen dituzten etxebizitzak sustatzeko konpromezua, hala nola cohousinga eta lurrak lagapenean uztea (cesión de uso) uztea horrelako sustapenentarako (**Euskadiko Gazteriaren Kontseilua – EGK**)
- Lurzoru publikoetan eta etxebizitza publikoa egiteko (soziala barne, errenta baxuekin) lankidetzak publiko eta pribatuetarako arauak eta finantzak uztartzea (**Arenhos Advisors**)
- Itunean beste etxebizitza-eredu batzuk gehitzeko aukera jasotzea, berritzaileagoak edo tradizionalen oso bestelakoak, desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen beharrei hobeto egokitu ahal izango zirenak. Adibidez, 7 pertsonentzako babes ofizialeko etxebizitzak, *cohousing*... Etxebizitza lortu ahal izateko itxarotendeborak murriztea. Denbora hori emaitzak ebaluatzeko adierazle argi bat da. Etxebizitza lortzeko baldintzak doitzeara, desgaitasuna “ahultasun-faktore” gisa jaso dadin, besteak beste lana lortzeko zailtasunak dakartzalako. Areago, Plena Inclusión-ek dauzkan datuen arabera, desgaitasun intelektuala duten eta lan egin dezaketen 10 pertsonatik 6k ez dute lanik. Desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonentzako kuota espezifikoak ezartzea. Enplegu publikoa har daiteke erreferentzia gisa: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. Hau dio 59. artikulua: “Enplegu publikoaren eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonen bete ditzaten, betiere, hautaketa-prozesuak gainditu, desgaitasuna egiaztatu eta desgaitasun hori bete beharreko zereginekin bateragarri dela erakutsita, horrela, arian-arian, administrazio publiko bakoitzak dituen langile guztien ehuneko bira iritsi arte. Desgaitasuna duten pertsonentzat joko dira azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 4. artikulua 2 zenbakian jasotakoak. Gutxieneko ehuneko zazpi hori erreserbatzeko orduan gutxienez eskaintutako plaza ehuneko bira adimen-desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonen bete beharko dute eta eskaintutako gainerako plaza beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenek” (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)

- Euskadin etxebizitza librearen prezioa neurrigabea dela ikusita, funtsezkoa da etxebizitza librearen gaineko ekintzak zuzenean jarduera-ildo gisa kontuan izatea. Etxebizitza berriaren kuotak, fiskalitatearen bidezko laguntzak... (**Fundación Laboral de la Construcción**)
- Gizarte-aniztasuna eta bizikidetzaren moduen aniztasuna. Etxebizitza bizi-proiektuaren parte gisa, ez zerbait aldagaitza eta zurruna balitz bezala. Taldeei eta komunitateentzako espazioei arreta ematea (**EHU – Etxebizitza Publikoan Masterra**)
- Proposatutako puntu horiez guztiez gain, uste dugu Etxebizitzaren aldeko Itunean urtero ezarri behar direla eraiki beharreko etxebizitza libreko helburuak. Horren harira, Itunak etxebizitza-behar globalak oro har aztertu behar lituzke, eta ez etxebizitza sozialaren ekoizpenean soilik arreta jarri (etxebizitza librearen bolumena landu behar da, gaur egun ekoizpena oso txikia baita). Denboran asko luzatzen ari den egoera birbideratzeko helburuak ikustea. 15 urtean 52.000 etxebizitza eraikitzeko helburua (urtean gutxi gorabehera 3.500 etxebizitza) oso eskasa da gaur egungo eskariari eta behar demografikoei erantzuteko. Euskal Herrian lurzoru-garapen berriak sortzea, etxebizitza-eskaintza globala, nola babestuena hala libreena, nabarmen handitzeko. Eskaintza handiagoa bada, prezio-tentsioak txikitu egingo dira, gazteek emantzipatu ahal izango dira, eta beste komunitate batzuetara bizitzera joan diren pertsonak itzuli ahal izango dira. Horrez gain, pertsonak eta familiek Euskal Herria garatzen lagunduko dute. Kontrola egin behar litzateke (Aldundia edo EJ), ezartzen diren helburuak erdiesten direla ziurtatzeko, sustapen pribatuaren eskura jarritako lurzoruaren erabilgarritasuna egiaztatuz (**Neinor Homes**)
- Helburu lorgarria eta ahula bereiztea; lehenengoari ekimen publikoak eta pribatuak erantzuten die, eta bigarrenari pribatuak soilik (**Q-Living Property Investments**)
- Garrantzitsua da merkatu librean etxebizitza eskuratzeko biztanle migratzaileek dituzten zailtasunak agerian jartzea, Euskadin diskriminazio-egoerak daudelako. Hori dela eta, Batzordeak uste du funtsezkoa dela zailtasun horiek kontuan hartzea eta xedeetan haiek jasotzea (**Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea**)
- Etxebizitza turistikoaren kontrola. Inbertsio funtsak eraikuntza osoak erosten ari dira eta etxebizitzak erabilera turistikorako bideratzen ari dira. Horrela alokairu parkea murrizten ari da eta espekulazioa sustatzen ari da. Guzti hau kontrolatu beharra dago eta mugatu
 - ✓ Etxegabeteak gelditu behar dira edo alternatibak eskaini etxegabeteak izango direnentzat.
 - ✓ Alokairuen prezioak mugatu behar dire legez. Ezin da utzi eskubide unibertsal bat merkatuaren esku. Administrazio publikoek zeresana daukate gai horretan eta badaude kasuak non demostratu den enpirikoki alokairuen mugek ez dutela eraginik izan eskaintzan (Bartzelonan eta inguruko herrietan adibidez)
 - ✓ Etxebizitzarako gastu publikoa bikoiztu behar da.
 - ✓ Etxebizitzaren inguruko estatistikak (batez ere alokairuak, etxebizitza turistikoak, funtsen eta bankuen jabetzak,...) Estadistikak eskuragarri jarri
 (**ELA Sindikatua**)
- Aurreko helburuak eraginkortasun energetikoko lotutako helburuekin batera eman behar lirateke, eta energia-oreka nulua edo positiboa duten eraikinak bilatu (**Gasteizko Udala**)
- Zalentzarik gabe, alokairua lehenestea, erosketaren orde (**Bilboko Udaleko Etxebizitza Saila**)
- Higiezinak eraikitzeak berekin dakarren enplegua, jende gutxiagoko eremuak jendeztatzeak aukera aztertzea, eraikuntzan green portzentajea handitzea (**DELGALA etxe-agentzia**)

3- JARDUERA-ILDO ETA -JARRAIBIDEAK

Zer neurritan zaude ados proposatutako jarduera-ildoekin?

	Oso baxua	Baxua	Altua	Oso altua
Inbertsio handiagoa etxebizitza, fiskalitate pizgarri batean oinarrituta	%0	%10	%48	%43
Etxebizitza-politikaren dimentsio sozialean sakontzen jarraitzea	%0	%0	%38	%62
Etxebizitza udal agenda estrategikoan sartzea orokortzea	%0	%4	%42	%53
Eraikuntzaren sektore erakargarria, lehiakorra eta berritzailea eratzea	%0	%7	%47	%47
Datuen inteligentzia eta ebaluazio aurreratua	%0	%2	%58	%40
Inplikazioa eta lankidetzaren publiko-pribatu-soziala	%0	%5	%36	%60

Itunean sartzeko proposatuko zenukeen beste JARDUERA-ILDO BAT adierazi

- 1) Legeetako aldaketak; 2) Zergetako aldaketak; eta 3) Prozeduretako aldaketak (Abokatuen Elkargoa / Barrilero y Asociados abokatu-langela)
- Aldezaharren eta baserrien birgaitze selektiboa (**SURADESA**)
- Gizarte-eskari berrietara (coliving, cohousing...) eta erabilera-nahasketara hobeto egokitzen diren biztante-formulak aztertzea eta sustatzea (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- Berme/Abal publikoen mekanismoak jasotzea higiezin merkatuan sartzeko, baita etxebizitza birgaitzeko finantzaketa lortzeko ere (**Triodos Bank**)
- Benetako koordinazio administratiboa lortzea, batetik, Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta, bestetik, tokiko administrazioekin (**SURBISA**)
- 1) Ildoen lehentasunezko jarraibide edo estrategietako batzuk ez daude oso zehaztuta edo kuantifikatuta. 2) Genero-ikuspegia 4. ildoan jasota dago, baina uste dut presentzia handiagoa izan behar duela beste ildo batzuetan (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Hain zuzen ere, birgaikuntzaren eta hiri-berronertzearen sustapena areagotzea; horretarako, dagozkion baliabide ekonomikoekin lagundu beharko zaie udalerriei (**Debegesa**)
- Etxebizitzarekin erlazionatutako jardunek hiri-garapenerako eta lurralde-antolamenduko politikarekin/jarraibideekin lotuta egon behar dute, herritarren giza eskubideak eta ariketa fisikoak egiteko eskubidea gauzatzeko hiria erabiltzeko eskubidea bermatze aldera (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – EKB**)

- Kontuan izan behar da etxebizitzaren kokapena, faktore horrek ondorioak baititu pertsonen bizi-proiektuetan. Hobe da komunitateak isolatuta ez dauden hiriguneetan egotea. Jarduera-ildo espezifiko gisa, desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen laguntza-beharrak kontuan izango dituzten proiektu pilotuak, programak, etab. gara daitezten sustatzea. Horretarako, etxebizitzarako eskubidea eraginkor bihurtze aldera behar den babes- eta laguntza-sisteman pentsatu behar da; besteak beste, etxebizitzaren eta gizarte-politiken arteko koordinazioa. Finantzaketarekin erlazionatutako jarduera-ildo zehatzak sustatzea; besteak beste, desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen banku-kredituak, maileguak, pizgarriak edo prezio baxuagoko alokairuak ematea. Etxebizitza eskuratzeko baldintzak aldatzea, desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak lehentasunezko talde gisa sailka daitezten etxebizitza-politiketan, diru-sarrera urriak dituztelako, laneratzeko zailtasunak dituztelako, etab. GAZTELAGUNen moduko programa bat sor daiteke talde horrentzat, edo beste arlo batzuetan badauden ekintza positiboko neurriak diseinatu; adibidez, prestakuntza-kontratuek ez dute 25 urteko adin-muga desgaitasun intelektuala duten pertsonen kasuan (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)

- Komunitateak indartzea (**EHU - Etxebizitza Publikoan Masterra**)

- Bizitegiak ez eraikitzearen arazoa konpontzeko lan egitea Etxebizitzaren aldeko Itunean. Lurzoru-falta eta espekulazioa (metropoli-eremuen garapena) eta lizentziak lortu arte lurzorua garatzeko egin beharreko prozesu luzeak (burokrazia eta administrazioa) murriztera bideratutako jarduera-ildoak jasotzea (**Neinor Homes**)
- Etxegabetzeak - Turistifikazioa - Etxebizitza hutsak - Gazteen emantzipazioa (**ELA Sindikatua**)
- Finantza-sektore pribatua etxebizitza-politiketan eraginkortasunez inplikatzeko, tresna bizi-eragoen eta aurreratuagoen bidez (**Gasteizko Udala**)
- Ingurune berean adinekoentzako etxebizitza kolektiboak edo cohousing etxebizitzak sortzea. Higiezinaren jabetzako eragile homologatuekin batera lan egitea biztanleek sektorearen prestakuntza eta sinesgarritasuna berriro balora dezaten, batez ere higiezinaren beste burbuila bat sor ez dadin (**DELAGALA etxe-agentzia**)
- Merkatu librean eragina duten jarduera-ildoak gauzatzea, etxebizitza huts ugari daudela kontuan izanda.

Batzordearen ikuspegitik, garrantzitsua da Etxebizitzaren arloko Immigrazio eta Asilo Planeko jarduera-ildoak Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialekoekin lerrokatzea.

1- EAEko etxebizitzari buruzko araudia aztertzea eta Sailak prestatutako arauetan, programetan, etxebizitza-proiektuetan... kulturarteko ikuspegia txertatzen / zeharkako gai gisa aplikatzen jarraitzea, hiri irekietan aniztasuna kudeatzeko moduetan kulturarteko ikuspegia hobeto txertatzeko eta zeregin horretan aurrera egiteko proposamen gisa. Horretarako, ikerketa-talde bat martxan jartzea: (Etxebizitza Saila, EJRen Etxebizitzaren Behatokia, Biltzen, Ikuspegi, Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordeko elkartearen sarea).

2- Higiezinaren sektoreko profesionalak etorkinen inklusioaren, eskubide eta betebeharren, eta kulturarteko eskumenen eta gizarteratzearen arloan sentsibilizatzea eta trebatzea. Trebakuntza: sail komertzialetako higiezinaren sektoreari zuzendua.

3- EAEko etxebizitzari buruzko informazio-materialak prestatzea, hizkuntza batean baino gehiagotan, araudia gizarte zibileko taldeengana hurbiltzeko.

4- Etxebizitza Sailak etxebizitza sozialak esleitzeko aplikatzen dituen irizpideen azterketa.

(Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea)

- Etxegabetzeak dekatzeko edo ekiditeko neurriak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2013 eta 2021 bitartean guztira 12.526 etxegabetze izan dira, hau da, EAEn 9.306 familia. Etxegabetze moten artean ohikoena Hiri-Alokairuen Legean oinarritzen da eta HEHko kasuen %77 alokairuko bizilekuei dagokie. Bide judizialek ematen diren etxegabetzeek gain, kontuan hartu beharrekoak dira ezkutuko etxegabetzeak, kontratua bukatutzat ematearen ondoriozkoak eta prezio altuagoko berritzeek suposatutako gainzama ekonomikoa edo beharturiko alokairuaren etetea, estatistiketatik kanpo geratzen direnak. Ez da jasotzen gure gizartean gero eta ugariagoak diren etxegabetzeei espezifiko erantzuten dion plangintzarik. Aurretik zehazturiko proposamen askok prebentziorako neurri gisa joka dezakete, baina egungo larritasun egoerak berme handiagoko neurriak galdegiten ditu. (**LAB Sindikatua**).

ETXEBIZITZAN GEHIAGO INBERTITZEA PIZGARRIETAN OINARRITUTAKO FISKALITATEAREN BIDEZ izeneko jarduera-ildoari dagokionez, adierazi hura eraginkortasunez garatzeko lehentasunezkoztat jotzen duzun beste edozein jarraibide

- Errentak urtean bitan berrikustea, esleipendunen ahalmenaren arabera (**Abokatuen Elkargoa / Barrilero y Asociados abokatu-langela**)
- Pizgarrietan oinarritutako fiskalitatea alokairuko etxebizitza eraikira eta birgaikuntzara bideratu behar litzateke, obra berriaren kalterako (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- A/B kalifikazio energetikoak dituzten bigarren etxebizitzak errentan uzteagatik kenkari fiskalak handitzea (**Triodos Bank**)
- Partikularrei eta erkidegoei laguntzak ematea (mailegu bereziak edo laguntza zuzenak), etxebizitza/eraikina birgaitzeko, etxebizitza/eraikina irisgarritasun unibertsalerako egokitzeko eta berritzeko (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – EKB**)
- Ohiko etxebizitzari lotutako kenkarian (nola inbertsio gisa hala alokairurako), seme-alaben kopurua hartu behar litzateke kontuan, eta mugak (nola urtekoa hala etxebizitzaren osokoa) % 20 handitu seme-alabako, logikoa den bezala etxebizitzaren kostua handiagoa baita bizitzeko metro koadro gehiago behar izan ahala. (Gaur egun, indarrean dagoen Etxebizitzaren Legearen arabera, bizigarritasun-baldintza 15 m²-koa da pertsonako) (**HIRUKIDE**)
- Zerga-pizgarriak etxebizitza librea erostera/alokatzerara zabaltzea talde zehatz batzuentzat; adibidez, lehenengo etxebizitza erosten duten gazteak. Zerga-pizgarri berriak finkatzea: BEZa murriztea edo kasu batzuetan hura ordaintzetik salbuestea (abalak ildoak...), merkatu librean etxebizitza erosteko finantzatu ezin diren kostuak eta ordainketak finantzatzen laguntzeko (**Neinor Homes**)
- Alokairua oso zigortuta dago fiskalki, bai BEZari bai sozietateen gainerako zergari dagokienez. Fiskalitate eragingarriagoa sustatzen saiatzea (**Q-Living Property Investments**)
- Pizgarriak askotan etxebizitzen jabeen mesederako izaten dira. Izan pizgarriak haientzat direlako (gutxiago ordaindu etxea alokatzeagatik), izan diru-laguntzak errenten igoera ekartzen dutelako (adibidez, Gaztelagun laguntza jasotzen denez jabeek errenta igotzeko aprobetxatzen dute. - Gure ustez gastutik egin behar zaio aurre arazo honi. Aurrekontuetatik baliabide gehiago jartzen, gastu publikoa bikoiztuz eta etxebizitza politiken garrantzia BPGan handituz. (**ELA Sindikatua**))
- Atxikipenik ez badago, ez dago fiskaliterik. Enplegua sortu behar da, atxikipena duten nominak izateko, gero zerga-onurak edukitzeko (**DELAGALA etxe-agentzia**)

ETXEBIZITZA-POLITIKAREN DIMENTSIO SOZIALEAN SAKONTZEN JARRAITZEA izeneko jarduera-ildoari dagokionez, adierazi hura eraginkortasunez garatzeko lehentasunezko zat jotzen duzun beste edozein jarraibide

- Kuotetan desgaitasun sentsoriala, mentala eta intelektuala eta mugikortasun urria duten “menpeko” pertsonak sartzea (**Abokatuen Elkargoa / Barrilero y Asociados abokatu-langela**)
- Etxebizitzak legez kanpo okupatzearen problematika desagerraraztea, bereziki jabetza publikoko etxebizitzak badira eta okupatzaileak ez badaude egoera ahulean (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- Itunean etxebizitzaren balioa berariaz txertatzea desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea izateko duten eskubidea bermatzeko funtsezko faktore gisa (**Elkartean - Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea**)
- Etxebizitza-politiken eta politika sozialen arteko integrazio handiagoa lortzeko estrategia azpimarratuko nuke bereziki. Nire ustez, erantzun integralek ekonomikoki “errentagarriagoak” diren eta arrakasta handiagoa duten sinergia biderkatzaileak sortzen dituztela baztertuen dauden taldeak gizarteratzeko (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Egoera bereziki ahulean dauden taldeentzat (etxerik gabe edo baztertuta dauden pertsonak) etxebizitza sozialak eraikitzea, txikiak, baina zerbitzu komunak dituztenak, eta epe luzera haietan bizitzeko aukera ematea. Alokairua haien aukera ekonomikoetara egokitzea. Etxerik gabeko pertsonak artatzen dituzten gizarte-erakundeekin sinergiak sortzea, baztertuta dauden edo zailtasun bereziak dituzten pertsonentzat etxebizitza sozialak kudeatu ahal izan ditzaten. - Katalunian Generalitateak egiten duen bezala, egoera bereziki ahulean dauden pertsonak bizi diren pisu kudeatu bakoitzeko zenbateko bat ordainduta. - Talde horientzat erabilera soziala izango duen etxebizitza sustatzen edo birgaitzen lagunduta (**Bizitegi elkarte**)
- Egoera sozial eta ekonomiko bereziki txarrean dauden taldeak artatzea, haien gizarteratzea ziurtatzeko eta diskriminazio soziala saihesteko. Emakumeengan ardaztutako etxebizitza-proiektuak (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – EKB**)
- 1) Gazteen emantzipazio adina jaitea eta emantzipazio tasa igotzea. 2) Gazteek emantzipatu nahiko luketen adina (23,6 urte) eta emantzipazio adin errearen arteko (30,2) arrakala gutxitzea. (**Euskadiko Gazteriaren Kontseilua - EGK**)
- Gizarte-politikak eta etxebizitza koordinatzearen esparruan, desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko zerbitzuetara bideratutako etxebizitza-zuzkidura bat haztea. FEVAS Plena Inclusión Euskadi-k behar sozialak identifikatzeko eta irtenbideak aurkitzeko funtsezko eragile gisa duen eginkizuna aitortzea. Dauden baliabideak desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen beharrek alderatzeko balio duten bideak ezartzea. Erakunde eskatzaileentzat eskura egongo den erregistro bat egitea proposatzen da, ez bakarrik etxebizitzena, baita lokalena ere. Lokalak etxebizitza gisa atondu daitezke, edo elkarteentzako lokal, eguneko arretarako zentro edo talde horri arreta emateko eta laguntzeko zerbitzu gisa erabili (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)
- Pertsonen bizi-proiektuetako egoera aldarretara molda daitezkeen askotariko etxebizitza-ereduak. Bizilagunen erkidegoak indartzea (**EHU – Etxebizitza Publikoan Masterra**)
- Legerian etxebizitza babestuetarako lurzoru-erreserbak berrikustea, eta babes publikoko etxebizitza lortzeko ezarritako irizpideak betetzen ez dituzten herritarrentzat etxebizitza libre gehiago egiteko aukera ematea. Edo ezarritako gehieneko mugak aldatzea, pertsona eta familia gehiago sar daitezten eta, horrela, biztanle gehiagok aukera izan dezaten. Dimentsio soziala gizarte osora zabaldu behar litzateke, haien diru-sarrerak edozein direla ere (**Neinor Homes**)
- Sustatzailearen eta patrimonialistaren arteko eskualdatzea ahalbidetzea. Inoiz ez dira eragile bera izaten eta, gainera, ez da eragingarria fiskalki. Sustatzailea azken jabea bada, BEZ osoa gastua da (**Q-Living Property Investments**)
- Etxebizitza Batzordearen ustez, zehaztasuna falta da, eta garrantzitsua da ezartzea zer neurri zehatz gauzatuko diren (**Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea**)
- Dimentsio sozialean sakontzeko etxebizitza babestu guztiak alokairuzkoak izan behar dira. Hau da modu efizienteena eta efikazena etxebizitza eskubide subjektibo bat izateko. - Eragile sozial eta etxebizitza sindikatuarekin gertuko harremana eta konstantea izatea. Gogoratu behar da Etxebizitza Sindikatuak 70.000€-ko isuna dutela bi etxegabetze ekiditen saiateagatik. Hau onartezina da. - Etxegabetzeak gelditu behar dira. (**ELA Sindikatua**)

- Etxebizitza babestuekin erlazioatutako komunikazio- eta informazio-kanalak indartzea eta hobetzea, bereziki egoera ahulenean dauden herritarrentzat (**Gasteizko Udala**)
- Sozialaren eta publikoaren arteko ñabardurak (**Bilboko Udaleko Etxebizitza Saila**)
- Lanean ari den, lan-proiektu bat martxan jartzen duen edo ardurapean adinekoak edo adingabeak dituen bizikidetza-eremu bat sortzen duen jendeari etxebizitza-proiektuak egitea edo dirulaguntzak ematea (**DELAGALA etxe-agentzia**)
- Etxerik gabeko pertsonak: Ez dago datu gaurkotu eta sistematizaturik, baina 2016an egin zen azken kale-zenbaketaren arabera 2000 pertsonatik gora zeuden kale egoeran (en situación de calle) eta urtez urte etxerik gabeko pertsonenentzako aterpetxeetan eskaria gora eta gora doa. Pertsona hauei ez zaie etxebizitza eskubide subjektiboa bermatzen. Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia 2018-2020 txostenean jada diagnostikatzen zen errealitate honi erantzuteko enfokea zentratuegi dagoela gizarte zerbitzuetan, eta etxebizitza politiken nahikotasun eza errealitate honi erantzuteko, inguruko herrialdeetan etxebizitza eskubidean oinarrituriko enfoke bat baliatzen den artean. Proposamenean ez da jasotzen errealitate honi loturiko planik. Etxebizitza eskubide subjektiboa eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa: Etxebizitza eskubide subjektiboa aitortzeko baldintzak berrikusi behar dira: alde batetik Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan izena emateko lau urteko epea ezartzeak pertsona kalteberenak kaltetzen dituelako gehien antzinasun hori betetzeko zailtasunagatik(gazteak, migranteak, indarkeria jasaten duten emakumean). Gainera, ezartzen diren diru-sarrerak ez dira onargarriak eta ez daude gaurkotuak. Pobreziaatalasearen azpitik leudeken pertsona askok ez lukete eskubidea aitortua izango (Kide bakarreko bizikidetza-unitateentzat urteko diru-sarrera haztatuak 9.000 euro baino txikiagoak izatea da muga, LGSaren azpitik kokatzen delarik). Egun, etxebizitza eskubide subjektiboa bermatzeko administrazio publikoak duen ezintasunaren aurrean Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa baliatzen da. Kasu honetan “la excepción es la regla”, eta beraz, honi buelta emateko plan estrategikoa beharrezkoa da, berriro ere parke publikoa handitzeko beharra agertzen zaigularik egungo zuzkidura etxebizitzen ez nahikotasunari aurre egiteko. Gainera, zaurgarritasun egoeratik atera edo etxebizitza sozial bat eskaini ezean hauetatik kanporatzeko debekua ezarri beharko litzateke. Emandako dokumentuan agertzen denez, Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa 2023tik aurrera Etxebizitza Sailburuordetzak kudeatuko du, kudeaketa optimizatzeko. Hala eta guztiz ere, aurrekontuetan eragin handiena duen prestazioa dela esateak ez du argibide handirik ematen prestazio horren kudeaketari buruz, prestazioa jasotzeko betekizunei buruz, bai eta **onuradunak ez diskriminatzeko estrategiei buruz ere**, ezta etxebizitza hobetzeko gainerako politikekin eta gainerako onuradunen profilek eskuratu ahal izango dituzten bizibaldintzekin lotura bermatu. Azkenik, erroldarako eskubidea aipatu beharko genuke. Estuki loturik dago etxebizitza eskubidearekin eta batez ere etxebizitza eskubide subjektiboa aitortua izateko eta prestazioak jaso ahal izateko aukerarekin. Egun errolda salerosten den elementu bat bihurtu da, pertsona askok ezin diotelarik erantzun erroldatzeko eskubide eta betebeharrari.(**LAB Sindikatua**).

UDAL-AGENDA ESTRATEGIKOAN ETXEBIZITZA ORO HAR SARTZEA izeneko jarduera-ildoari dagokionez, adierazi hura eraginkortasunez garatzeko lehentasunezko zatitza jotzen duzun beste edozein jarraibide

- Udal-zerrendak ezabatzea eta Etxebide soilik uztea (**Abokatuen Elkargoa / Barrilero y Asociados abokatu-langela**)
- Jarraibide orokorren aurrean malgutasunez jokatzeko eta berritzeko mekanismoak ematea udalei, beren lurraldean sortzen diren problematika espezifikoari arrakastaz aurre egin ahal izateko (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- Udaletako etxebizitza politikak lau urtero aldatzeko arriskua egonda (alderdiak edo pertsonak aldatzen direlako) politika horiek epe luzeagoetan EAeko ildoekin lerrokatuta egon daitezten Udalek aholkularitza edo nolabaiteko soportea beharko luketela uste dut. (**Lekeitioko Udala**)
- Kontuan izan behar da etxebizitzaren arloko udal-eskumenak mugatuta daudela, eta, hori dela eta, aurrekontu txikia dagoela hiriak birgaitzeko udal-politiketarako; hori da udalek ondare eraikia birgaitzeko erronka gehiago beren gain ez hartzearen arrazoia (**SURBISA**)
- Etxebizitza egokitzeko konpromisoa hartu behar dutela jakinaraztea udalei. Leku estrategikoetan (adibidez, bainugela eta sukaldea) behar berezietara egokitutako irisgarritasuna bermatzea dibertsitate funtzionala duten pertsonari, mugikortasun urriko erabiltzaileei autonomia pertsonala emateko. Udal-etxebizitzetan, udalek bazter utz dezatela eremuak (adibidez, komuna) egokitzeko betebeharra erabiltzailearena dela, eta horrek guztiak dibertsitate funtzionala duen pertsonari dakartzkion gastu eta kale guztiak saihestea (**FEKOOR**)
- 1) Oso bitxia da udaletako gizarte-langileek gure fundazioari eta antzeko beste gizarte-erakunde batzuei eskatzea desabantaila sozialean dauden pertsonentzako etxebizitza, etxebizitzaren udal-parkea egona. 2) Eguzkilore Fundazioak Etxebarriko eta Derioko udalekin elkarlanean diharduela aipatzea hemen. Formula hori zabaldu egin nahi genuke, lankidetzaren hiriak urteak baitaramatzate martxan eta ebaluazio positiboa jaso baitute. Eguzkilore arduratzen da etxebizitza kudeatzeaz, birgaitzeaz, kontratuak egiteaz, hornidurak bideratzeaz, alokairuak kobratzeaz, etab.; aldiz, oinarriko gizarte-zerbitzuek etxebizitzak nori esleitzen zaizkien erabakitzen dute, eta familien gizarte-segimendua egiten dute (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Hain zuzen ere, birgaikuntzaren eta hiri-berroneratzearen sustapena areagotzea; horretarako, dagozkion baliabide ekonomikoekin lagundu beharko zaie udalerriei (**Debegesa**)
- Udal-administrazioak ere berea bihurtu behar du gaia, ez bakarrik Eusko Jaurlaritzak (**Laboral Kutxa**)
- Udalek esku hartzea eta inplikazioa funtsezkoa da beren biztanleen beharrak eta lehentasunak identifikatzeko eta etxebizitza lortzeko zer oztopo dauden ikusteko (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna - EKB**)
- Beharrezkoa da udal-oinarri arautzaileetan era guztietako taldeentzako etxebizitzaren diseinuak egotea; diseinu horietan ez litzateke inor baztertuko, eta ardurapean adingabeak dituzten eta etxebizitza duina behar duten pertsonari emango liekete lehentasuna (**HIRUKIDE**)
- Jaurlaritzako, udaletako eta abarrek kudeaketa-taldeak irisgarritasun-araudiak ezagutu behar dituzte (68/2000 edo TMA 861), ingurune irisgarriak sortzearen beharraz jabe daitezten. Irisgarritasunak inklusioa dakar (**FEKOOR**)
- Bizikidetzaren ereduaren aniztasuna. Pertsona-aniztasuna (arrazo, sinesmenak, joerak...) Pertsonen dibertsitate funtzionala (**EHU – Etxebizitza Publikoan Masterra**)
- Bizitegiarako garapen-eremu berriak mugatu eta gara daitezten sustatzea, eskari eta zerbitzu gehieneko udalerrietan etxebizitza-eremuak handitu ahal izateko. Euskal Herriko metropoli-eremuen garapena begien bistatik ez galtzea (Bilbo eta Donostia) (**Neinor Homes**)
- Eginda eman behar zaio (**Q-Living Property Homes**)
- Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta udaletxeen arteko etxebizitza politikak erabat koordinatuta egon behar dira. Politika integralak behar dira, ez bakoitza bere aldetik. (**ELA Sindikatua**)
- Etxebizitza Sailburuordetzak eta tokiko administrazioek laguntza ekonomiko eta finantzario handiagoa ematea (**Gasteizko Udala**)
- Etxebizitza-politikaren eta obra eta hiri-antolaketa arteko independentzia argia (**Bilboko Udaleko Etxebizitza Saila**)
- Lehenik, aberastasuna ekarriko duen gizarte- eta industria-sarea berreskuratu behar dugun eremua jendeztatzea (**DELAGALA etxe-agentzia**)

ERAIKUNTZAREN SEKTORE ERAKARGARRIA, LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA ERATZEA izeneko jarduera-ildoari dagokionez, adierazi hura eraginkortasunez garatzeko lehentasunezko zat jotzen duzun beste edozein jarraibide

- 1) Ekonomia birzirkularra eraikuntzan; 2) Eraikuntza industrializatzea (**Abokatuen Elkargoa / Barrilero y Asociados abokatu-langela**)
- Eraikuntzaren sektoreko etorkizuneko langileentzako egungo prestakuntza- eta gaikuntza-eredua birrorientatzea, ziklo laburragoen eta praktikoagoen alde eginez (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- Gure udalerrietan hain beharrezkoa den hiri-birgaikuntzaren eta -berroneratzearen erronkari aurre egiteko, obren kalitatea kaudimenez eta profesionaltasunez bermatuko duen birgaikuntzaren/eraikuntzaren sektore bat behar da (**Debegesa**)
- Bistakoa da sektorea oraindik ere funtsezkoa dela BPGd-n, baina zaharkituta geratu da. Lanbide-heziketa behar dugu, adibidez migratzaileak eta aurrera ateratzeko eta etorkizuna izateko haien gogoia aprobetxatuz (**Caja Laboral Popular**)
- Denborari eta kostu ekonomikoari dagokionez, etxebizitzak sustatzera eta eraikitza bideratutako administrazio-prozesuak ahalbidetzea. Etxebizitzak tokian-tokian ekoiztutako eraikuntza-material eta -teknologia jasangarriak erabiliz eraiki daitezten sustatzea edo horretarako pizgarriak ematea (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – EKB**)
- Zalantzarik gabe, Eraikuntza Klusterrak enpresak lehiakorragoak bihurtzea du helburu, eta berrikuntzari lotuta dago; oso profil zehatza duen enpresa-talde baten bidez egiten du lan. Sektorea eta helburu sektorialak esaten dugunean, ezin dugu alde batera utzi hitzarmen orokor bat dugula eta hitzarmen horrek, lan-arloa ez ezik, funtsezko alderdiak ere jasotzen dituela. Horren adibide bat gizarte-eragileek 2022ko maiatzaren 11n egindako aurreakordioa da, VII. hitzarmenaren oinarria. Aurreakordio horrek lehenengo pentsio-plan sektoriala biltzen du, eta ezbehar-tasari aurre egiteko derrigorrezko trebakuntza berriak ezartzen. Laneko arriskuen prebentzioa, enpleguaren eta kualifikazioaren sustapena eta beste alderdi batzuk xedatzen eta adosten dira. Hura Fundación Laboral de la Construcción-ek ezarriko du (115. artikulua). 1992an sortutako erakunde paritario sektorial bat da, eta klusterreko enpresek eta hari lotuta ez dauden enpresa guztiek (Euskadiko 5.000 bat enpresa) osatzen dute. Enpresa horiek esku hartuko dute haien obretan (azpikontratatistak eta autonomoak). Politika sektorialen kudeaketan adituak (**Fundación Laboral de la Construcción**)
- Eraikuntzaren sektore elitistek kanpoan uzten dute pertsonen ezagutza etxebizitzak zehazteko prozesuan (**EHU - Etxebizitza Publikoan Masterra**)
- Administrazioek horren alde egin behar dute, helburu horiek dituzten enpresei ikuspegi guztietatik (fiskala...) babesa eta laguntza emanez (**Neinor Homes**)
- Industrializazioa, sektore berdintasunezkoagoa, baldintza ekonomiko hobek eta lan-egonkortasun handiagoa. Horrela, beste begi batzuekin begiratuko zaio (**Q-Living Property Investments**)
- Eraikuntza sektorea sostengarria izan behar du, lan-baldintza egokiak dituen eta administrazio publikoen zerbitzura dagoena. Etxebizitza babestuak eraikitzeo, agian eraikuntza enpresa/sistema publiko bat behar da. Enpresa pribatuen helburua errentagarritasuna da. Helburua denok etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzea da, ez hainbat enpresek errentagarritasuna ateratzea (Amenabar, Neinor, Sukia...) (**ELA Sindikatua**)
- Tresna espezifikoen bidez, tokiko eraikuntza-enpresa txikiagoei birgaikuntzan profesionalizatzen eta espezializatzen laguntzea. Birgaikuntzan espezializatutako enpresen erregistro bat sortzea (**Gasteizko Udala**)
- Lankidetzaren publiko eta pribatua (**Bilboko Udaleko Etxebizitza Saila**)
- Energia aurrezteko eta green balorazioko politika guztiak (**DELGALA etxe-agentzia**)

- Immigrazio eta Asilo Planean, enplegu- eta prestakuntza-arloko lan-ildoak ezartzen dira jarduera-ildo honi lotuta, eta Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialarekin lerroka daitezke:
 - 1.- Lanbideko teknikariak trebatzea, ikuspegi inklusiboa eta kulturartekoa izan dezaten.
 - 2.- Etorrinek hizkuntza ofizialak ikas ditzaten bultzatzea, eraikuntzaren sektorean integratzeko, trebatzeko eta enplegatzeko.
 - 3.- Atzerritarrek eraikuntzaren sektorean lan-orientazioa jaso dezaten ahalbidetzea.
 - 4.- Lanbide Heziketako Zuzendaritzak eraikuntzaren sektorean lan egiteko, trebatzeko eta laneratzeko ematen dituen laguntzen deialdiak berrikustea, epeak eta laneratze-baldintzak egokitzea, eta laguntzen deialdiei koherentzia handiagoa ematea, erakundeen eta onuradun eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko.
 - 5.- Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea ekitatean berritzeko, administrazio-egoera araugabeen dauden pertsonen eraikuntzaren sektorean eskumen profesionalak aitortuta
 - 6.- Immigratzaileen birziklapen-prestakuntza berrikusten laguntzea (enplegurako aktibatze orientazioa eta trebakuntza), baita prestakuntza-katalogo espezifikoak prestatzen ere, kasu honetan eraikuntzaren sektorean, atzerritarren prestakuntza eta birziklapena hobetzeko, eraikuntzaren sektorean haiek enplegurako aktibatze aldera.
- (Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea)**

DATUEN INTELIGENTZIA ETA EBALUAZIO AURRERATUA izeneko jarduera-ildoari dagokionez, adierazi hura eraginkortasunez garatzeko lehentasunezko zat jotzen duzun beste edozein jarraibide

- Big data bidez lortutako informazioa praktikara eramatea (**Abokatuen Elkargoa / Barrilero y Asociados abokatu-langela**)
- Datuen inteligentzia eta ebaluazio aurreratua: horri esker, eragingarritasun handiagoz ezagutzen dira beharrak, eta ingurune lagunkoiak sortzen dira, irisgarritasun pertsonalizatua ahalbidetzeko, erabiltzaileen beharretara egokitutako irisgarritasuna optimizatuz (**FEKOOR**)
- Gardentasuna bermatzeko eta etengabeko ebaluazioa egiteko Sailburuordetzak egindako ahalegina agerian jartzea (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Lortutako irizpideak, datuak eta informazioa aldian-aldian eguneratzea eta berrikustea (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – EKB**)
- Desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen errealitatera egokitutako adierazleak sartzea: etxebizitza lortzeko itxarote-denbora, biztanleria taldetan banatzea azterlan eta ikerketetan... Babes ofizialeko etxebizitzetan desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonentzako programa espezifikoa sustatzea ekintza positiboko neurri gisa, kuotaz gain finantzaketa-neurri zehatzak ere izango dituztenak (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)
- Interesgarria litzateke etxebizitza irisgarritasun-mailaren arabera (oro har) sailkatu edo ebaluatu ahal izango luketen adituak izatea eta kasuan kasuko dibertsitatearen arabera helburuko sektorerara edo pertsonara bideratzea (itsua, gorra, mugikortasun urrikoa...) (**FEKOOR**)
- Etxebizitzak pertsonentzat dira. Ez dira datuak. Adierazleak egokiak ez badira, emaitzek ez dute islatuko pertsonen benetako iritzia (**EHU - Etxebizitza Publikoan Masterra**)
- Datuak funtsezkoak dira erabaki politikoak eta proposamenak egiteko. Hori bai, datu horiek publikoak eta guztien eksu egon behar dira. (**ELA Sindikatua**)

4- PARTAIDETZA-, LANKIDETZA- ETA GOBERNANTZA-EREDUA

Zer neurritan zaude ados proposatutako gobernantza-elementuekin?

	Oso baxua	Baxua	Altua	Oso altua
Etxebizitzaren Foroa sortzea eta dinamizatzea	%0	%10	%38	%52
Herritarrekin aktiboki entzuteko eta parte hartzeko dinamikak sartzea	%0	%7	%40	%52
Finkatutako helburuen aurrerapenari buruzko kontuak emateko urteko txostena	%0	%2	%33	%64

Adierazi proposatutako partaidetza-, lankidetz- eta gobernantza-ereduaren inguruko edozein ñabardura edo alternatiba

- Bai erakundeen artean (maila guztietan), bai erakundeetatik kanpo, partaidetza-, kontsulta-... tresna, mekanismo eta organo gehiegi daude, eta, batzuetan, ez dira oso eraginkorrak (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- Entzute aktiboaren ondoriozko eduki baliodunak onartzen diren proposamenen parte izan daitezkeen lortzea; hau da, parte hartzeko erabiliko diren proposamenak eraiki daitezela eta partaidetza ez dadila mugatu egindako proposamenen berri ematera, kontuak ematera (**SURBISA**)
- Oso ondo dago, eta aukera bikaina da Foroan parte hartzeko (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak eurak herritarren partaidetza antolatuko eremuetan sartzea. Herritar gisa parte izan behar dute, eta, horretarako, beharrezko laguntzak antolatu behar dira (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)
- Herritarrei modu aktiboan entzuteko eta haiek parte hartzeko atala oso garrantzitsua da, baina gehiago zehaztu behar litzateke. Bideoak? Inkestak? Arreta espezifikoko bulego bat? (**FEKOOR**)
- PARTAIDETZA SUSTATU NAHI DA, BAINA OSO EXEKUTIBOAK EZ DIREN FORMATUETATIK URRUNDU BEHAR LITZATEKE (**ASCONGI-ADEGI**)
- Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordeak uste dut funtsezkoa dela sortuko den Etxebizitza Foroan parte hartzea, gure ustez tresna horrek askotariko ikuspegiak txertatzeko aukera emango baitu (**Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea**)
- Horrelako proposamenak ez dira benetako gobernantza prozesu bat. Gobernantzak eskatzen du hasierako planifikaziotik parte-hartzea sustatu behar dela. Gure ustez, benetan bilatzen dena da EJK ildoak, helburuak eta prozesua markatzea, gero gurekin biltzea eta gure proposamenak ikustea (ez dugu uste kontutan hartuko direnik) eta ondoren esan guztion artean egindako prozesu bat izan dela. (**ELA Sindikatua**)
- Etxebizitza Foroak organo erabat operatiboa eta independentea izan behar du; administrazio-maila guztiek eta sektoreko ospe handiko kideek egon behar dute ordezkatuta, eta Eusko Legebiltzarrerara iritsi behar du kontuak emateko (**Gasteizko Udala**)
- Etxebizitza-eskatzaileen eskaerak jasotzen dituzten pertsonak esan dezaketena entzun behar da. Higiezin jabetzako eragileari berriz ere balioa ematea. Laginketak sortzea adinekoentzat, etorkinentzat, ikasleentzat edo ardurapean seme-alabak dituzten sektoreentzat. Jendeak etxebizitza izatea eta aisiako eta lanerako laguntzako eremuekin partekatzea humanizatu behar da (**DELGALA etxe-agentzia**)

Etxebizitzaren Foroa sortzeari dagokionez, zer aukera-maila ikusten duzu ordezkatzeko duzun erakundea foro horretan aktiboki parte hartzeko?

Oso baxua edo batere ez	%0
Baxua	%18
Altua	%45
Oso altua	%36

5- ITUNEAN PARTE HARTZEA

Ituna sinatzea eta aktiboki bere garapenean parte hartzea, Itunean parte hartzea dela ulertuz, zer aukera-maila ikusten duzu ordezkatzeko erakundeak Itunean parte hartzeko?

Oso baxua edo batere ez	%0
Baxua	%18
Altua	%40
Oso altua	%42



AURREKO ERANTZUNA TXIKIA EDO OSO TXIKIA IZAN BADA, ADIERAZI ZEIN ELEMENTU JASO BEHAR LIRATEKEEN ITUNAREN AZKEN BERTSIOAN ZURE ERAKUNDEA HAREN PARTE IZAN DADIN

- Ez da Itunean falta daitezkeen elementuen kontu bat, baizik eta gurea bezalako Udal txikiak noraino parte hartu dezakeen zalantza (**Lekeitioko Udala**)
- Etxebizitza ez da gure jardueraren enborreko esparrua. Zeroplus-en komunikazio-taldean gaudelako eta Itunak ekimen horretan eragin zuzena duelako joan gara komunikazioetara (**ACEDE Etxearen Klusterra eta H-ENEA Living Lab**)
- Denbora faltaren gai bat besterik ez da, ez Itunean zerbait faltan somatu dugulako. (**AUBIXA Fundazioa**)
- Aurreko ataletan adierazitako puntuak jaso daitezela, partzialki bada ere, eta etxebizitza libre gehiago garatzeko helburuak sar daitezela Itunean (**Neinor Homes**)
- Orain arte aipatu ditugunak (**ELA Sindikatua**)

6.- IRUZKIN OSAGARRIAK

- Gasteizko Udalaren udal hirigintza-elkarte gisa, zuzenean edo Udalaren beraren bidez atxiki ahal izango litzaioke Itunari. Erabaki hori inkesta betetzen ari denaren eskumenetik kanpo dago (**Ensanche 21 Zabalgunea SA Udal Hirigintza Elkarte**)
- Gure erakundeak hiru alderdirekiko erabateko konpromisoa du: soziala, kulturala eta ingurumenekoa. Kanpo uzten dugu alderdi horietako batekin gutxienez bat ez datorren edozein jardun, eta, kasu zehatz honetan, haietan bitan eragin zuzena du: soziala eta ingurumenekoa. Hori dela eta, gure ustez, gure partaidetzak garrantzi kualitatibo handia du, eta eragile garrantzitsua ere bagara politiken alderdi praktikoa garatzeko orduan (**Triodos Bank**)
- Urtean birgaitzen diren etxebizitzaren % handitzeko helburua erdiesteko, paradigma aldatu behar da, ez dadila soilik mugatu laguntza ekonomikoetara, baizik eta BENETAN hurbildu, sinplifikatu eta bizkor eman eta ordain dakizkiela birgaitzaren lanak egin behar dituztenei, baita gaur egungo erronkei aurre egiten laguntzen duten aliantzak zabal daitezela ere (**SURBISA**)
- Bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu desgaitasuna duten pertsonentzat funtsezkoak diren bi faktore Itunean txertatzea: etxebizitzaren irisgarritasun unibertsala bermatzen aurrera egitea, eta Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortzen den bizimodu independentea izateko eskubidea gauza dadin bermatzeko etxebizitzarako eskubideak duen garrantzia aipatzea (**Elkartean - Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea**)
- Denbora gutxi daramat etxebizitzaren arloan lanean; beraz, ezin dut egin ekarpen bereziki interesgarriak edo hausnartuak. Horren harira, jardunaldia eta banatutako dokumentazioa oso lagungarriak egin zaizkit (**Eguzkilore Fundazioa**)
- Bizitegi baztertua dauden pertsonekin egiten du lan. Artatzen ditugun pertsonen arazo handiena da oso zaila gertatzen zaiela etxebizitza duin, egonkor eta epe luzerako bat lortzea beren bizi-proiektuak eraiki ahal izateko. Gizarte-zerbitzuetan laguntza-sistema onak daude (beti hobetu daitezke), baina etxebizitza lortzeko arazo handiarekin topo egiten dute. Etxebizitza ez da soilik bizitzak une jakin batzuetarako, baizik eta bizi-prozesu osorako. Pertsona asko behar dutena baino arreta handiagoa ematen dieten programetan gelditzen dira, ateraz gero etxebizitza galduko dutelako eta kalean edo etxebizitza ez-seguru edo ezegonkor batean geratuko direlako. Beren diru-sarreretara egokitutako etxebizitza eta laguntza txikiagoa jasota, epe luzera mantendu ahal izango lirateke (**Bizitegi Elkarte**)
- Gure ustez, finantza-erakunde gisa, Ituneko bi alderditan aktiboki parte hartu behar dugu: 1.- Babes ofizialeko etxebizitzari dagokienez, finantzaketa emanez; zehatzago esanda, “erabilera lagata” daukaten alokairuko etxebizitzetan. Dakizuenez, aukera bat baino gehiago aztertu ditugu Txomin Eneako etxebizitzetan, baina, azkenean, ezin izan dugu finantzaketarik eman, kapital-kontsumoko kontu batengatik. Beste eskualde batzuetan ari gara halako etxebizitzak finantzatzen, erkidegoetako sozietate filialen bidez edo kooperatiben bidez. Formula hori lortzeko, nagusiki klausula bat gehitu da kontratuetan eta, haren bidez, autonomia-erkidegoa subrogatu egiten da, edo 5 kuota ordaindu gabe dituen etxebizitzaz arduratzen da. 2.- Etxebizitza birgaitzeari dagokionez, uste dugu eragile garrantzitsuak izan behar dugula Europako dirulaguntza horiek osatzeko orduan; horretarako, bilera bat proposatuko du gure kontsumo-sailak, modu aktiboagoan nola parte har dezakegun ikusteko (**Banco Santander**)
- Etxebizitzaren Euskal Kontseilua sortzea. Etxebizitzaren Euskal Behatokia sortzea (**Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – EKB**)
- Oso modu positiboan baloratzen dugu Itunean gure partaidetza eta ekarpenak jasotzea, baliagarriak baitira. Gure ustez, lagungarriak izan daitezke pertsona guztiek etxebizitzarako duten eskubidean aurrera egiteko. Aurreko ataletan esan dugun bezala, Ituneko helburuak erdiesteko, funtsezkoa da Etxebizitza eta Gizarte Politikak koordinatzea. Jardunetan, irisgarritasun unibertsalaren irizpideak ezarri behar dira (fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa), Euskadiko Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategiaren Ekintza Planarekin bat etorritik. Haren arabera, jardun-esparruetako bat “espazio publikoei eta eraikuntzari” dagokio (**FEVAS Plena Inclusión Euskadi**)

- Itunean ez dira aipatu ere egiten etxerik gabekoak, eta gehiago eta hobeto zehaztu behar dira “egoera ahulean dauden taldeak” izenekoak. Euskadin etxerik gabe daudenen arazoa ez da agertu ere egiten aurkeztutako dokumentuetan, ez diagnostikoan detektatutako gizarte-arazo gisa, ez landu beharreko helburu gisa... Gure ustez, hutsune nabarmena da, eta Ituna bera baliogabetzen du. Euskadin etxerik gabe daudenen arazoari Itunean heltzen ez bazaio, non helduko zaio? Zer ikuspegi sozial du Itunak? Bestalde, Itunak etxebizitza-politikaren dimentsio sozialaz hitz egiten du, baina ez du zehazten zein talderi buruz ari den, gazteez gain. Horren harira, uste dugu funtsezkoa dela etxerik gabeko pertsonak lehentasunezko taldeen artean kokatzea, eta pentsatzen dugu emakumeak ere sartu beharko lirakeela, baita Itunari ikuspegi feminista eman ere. Hona hemen gai horietarako erreferentziako dokumentu batzuk: EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik (Emakunde, 2016). V Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV, 2020 (Eusko Jaurlaritza, 2020). Etxerik Gabeko Euskal Estrategia, 2018-2021 **(Cáritas Bizkaia)**
- Hirugarren sektore soziala arlo honetako eragile gisa. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legeak elkarrizketa zibilaz hitz egiten du bigarren kapituluan (7. artikulua), baita Euskadiko hirugarren sektore sozialaren sare eta erakundeetan parte hartzeaz ere: euskal administrazio publikoen kontsulta-organoetan eta partaidetza-ekimen puntualetan (8. artikulua), eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean (9. artikulua). Elkarrizketa zibilaren printzipioari jarraituz, Legeak aitortzen du erakundeek (eta, haien bidez, esku-hartze sozialaren hartzaile diren pertsona, familia, talde eta komunitateek) eragiten dieten politika publikoetan parte hartzeko eskubidea dutela, fase guztietan, egikaritze-fasea barne (eta, horrenbestez, erantzukizun publikoko zerbitzuak ematen ere bai). Legearen arabera, elkarrizketa zibila sektore publikoaren eta hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareen arteko solasaldi- eta lankidetzaren prozesu formal bat da, eta sektore publikoak eta hirugarren sektore sozialak esku-hartze sozialaren esparruan abiatutako gizarte-politikak eta beste ekimen batzuk orientatzeko, sustatzeko eta ebaluatzeko erabiltzen da. Horren ondorio gisa, alderdiek ekimen zehatzak sustatu behar dituzte, banaka edo elkarlanean, eta eskubideak egikaritzeko zailtasun gehien dituzten pertsona, familia, talde eta komunitateei beren eskubideak aitortzen eta eskubide horiek benetan gauzatzen aurrera egitea izan behar dute helburu gisa. Desgaitasunaren esparrutik datorren printzipio hori Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde guztietara zabaltzen du Legeak, baita elkarrizketa zibila sektore publiko osoan sustatzeko agindua ere, maila exekutiboan (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta tokiko erakundeak) eta legegilean (Eusko Legebiltzarra eta batzar nagusiak), kide anitzeko organoak (esaterako, Elkarrizketa Zibileko Mahaiak) eta antzeko beste tresna batzuk sustatuz, baita kontsulta moduan ez ezik hirugarren sektore sozialarekin eta esku-hartze sozialarekin erlazioatutako politika eta ekintza-ildo publikoetan hirugarren sektore sozialaren partaidetza eraginkorrean eta benetakoan sakontzera bideratutako beste neurri batzuk hartuz ere. Hortaz, uste dugu egokia litzatekeela Sareen Sareak ere (Euskadiko hirugarren sektore sozialaren sare) parte hartzea, eta gaia Elkarrizketa Zibilaren Mahaira eramatea **(Cáritas Bizkaia)**
- Interesgarria iruditzen zait galdetegia motibazio teknikoagoa duten pertsonentzat. Nire kasuan, topaketa horietan ezagutza-arloen zer partaidetza- edo inklusio-maila dagoen egiaztatu nahi nuen. Oso garrantzitsua iruditzen zait etxebizitzaren gaia; neroni horrek ingurune hurbilean eta Euskal Autonomia Erkidegoaren gainerakoan sortzen dituen zailtasunen lekuko naiz. Nire aldaera pertsonalen ondorioz (63 urteko adinekoa, dibortziatua, bakarra eta higiezin-ondararik gabea), zuzenean dakit nola eragiten duen. Bestalde, nire profila gero eta ugariagoa da eta izango da, eta ziurgabetasun handiz ikusten dut etxebizitza-eredu tradizionala ez dela gure errealitatera eta gure aukeretara egokitzen, ezta gaur egungo gure itxaropen eta nahietara ere. Ezaugarri espezifikoak dituen belaunaldi bat gara, nik uste aldaketa sozial eta ekonomiko baten ondorio. Aldaketa hori bizkor gertatu da, eta ia ez digu denborarik utzi aurreikusteko edo saihesteko, eta gure kalterako izan da, eraldaketa sozial bizkor horren eragin handiena jasan dutenen kalterako. Evidentzia zientifikoa nahi nuke osasun mentalaren edo ongizate fisiko eta emozionalaren arloan eta etxebizitzari lotuta, nahiz eta jakin gai horri buruzko literatura zabal eta lan ugari daudela. Hala ere, ez dut borondate administratiborik ikusten haiek beren programetan sartzeko eta esku artean dugun gaia hainbat ikuspegiatik aztertzeko eta lantzeko. Motibazio horrekin hartzen dut nik parte Ametsak Sortzen elkartearen kide gisa eta osasunaren arloko profesional, gaikuntza sanitarioa duen psikologo eta psicoterapeuta humanista gisa. Nire hausnarketa nolabait egokia iruditzea espero dut. Aldez aurretik, eskerrik asko **(Ametsak Sortzen)**
- Fundazioak eraikuntzaren sektorea du helburu; hortaz, haren ekarpena eta zeregina funtsezkoak dira eraikuntzarekin eta birgaikuntzarekin erlazioatutako edozein proiektutan. Eskerrik asko parte hartzeko aukera emateagatik. Eskerrik asko **(Fundación Laboral de la Construcción)**
- Etxebizitzaren aldeko Itunak Euskal Herrian dagoen arazo demografikoa eta jaiotza-tasaren arazoa konpontzea izan behar du helburu, eta, gure ustez, bere ekintza-eremua zabaldu behar du, gizarteak oro har eskatzen duen bizitegi-produktu osora **(Neinor Homes)**
- Interesa dugu, baina zifrek argi egon behar dute, denborek bezala **(Q-Living Property Investments)**
- Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordeak uste du Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean jasotako printzipioen esparruak ibilbide-orri bat markatu ahal izango lukeela **(Immigrazio eta Asilo Foroko Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordea)**

- Sentikortasun handiagoz jokatu behar da etxebizitza-parke berria sortzean, ez bakarrik eraikuntzari dagokionez (ahalik eta ekologikoena izan behar du ingurumenarekin), baita talde berriekin etxebizitza-aukera berriak sortzeari dagokionez ere. Eta aldi baterako etxebizitzak trebatzen, lan bila geografikoki mugitzen edo lana sortzen ari diren pertsonentzat (**DELGALA etxe-agentzia**)
- Etxebizitzaren Itun Sozialari dagokionez, uste dugu Euskal Herriko bizitzaren prekarizazioaren eta jendarte bazterketaren hedatze orokorraren errealitatea sakontzen ari dela, eta, beraz, bat gatoz EAEn etxebizitza-eskubidearen egoera lazgarriari aurre egiteko gai izango den plangintza publiko serio eta konprometituen beharrarekin. Hala ere, badira atentzioa eman diguten elementu batzuk, eta horregatik zuekin partekatu nahi genituzke hainbat gogoeta. Hasteko, kezkatuta gaude Itunerako proposatzen den jarduera-epe luzearekin (15 urte). Aldakorra eta premia sozial handikoa den testuinguruan aurkitzen gara eta gida lerro nagusiak epe ertain luzean jarrita ere, gaurdanik bidea egin dadin bermeak jartzea beharrezkoa da. Gainera, ez da jasotzen inolako bermerik politika publiko hauen garapen, kontrol eta ebaluazioari dagokionez; ez eta parte hartze sozial eta sindikalak duen benetako paperaren aitortzarik. Gure aburuz, azken hauek ezinbestekoak dira epe ertain eta luzerako egitasmoen gauzatze efektiboa emateko. Era berean, helburua lan-prozesu bat eraikitzea dela deritzogu, baina Ituna benetan parte-hartzailea eta lankidetzakoa izan adin, beharrezkoa da Itunaren jarduera-epean zehar anbizio zein zehaztasun handiagoa duten mugarriak ezartzea, orain arte zabaldu den proposamenean islatzen ez direnak. Horregatik diogu etxebizitzarako eskubide subjektiboa gauzatzea egiturazko gaia dela, eta Itunaren prozesua bera eraldatzailea izan dadin, ez da nahikoa herritarroi administrazioaren datuei eta estrategiei buruzko informazioa ematea. Beharrezkoa da hasieratik jarraipen eta kontrol sozial eraginkorrerako mekanismoak aurreikustea, bai proposamena egitean sortzen diren proposamenak sartzeko, bai amaieran sinatzen dena betetzeko. Parte hartzeko ereduaz gain, egiturazko zenbait gabezia ere antzematen ditugu dokumentuan: Etxebizitzaren problematika zabala da oso baina egun, batez ere alokairuaren eta etxegabeteen inguruko problematika izaten ari dira katalizatzaile nagusiak, infravivienda deiturikoaren eta kalean bizi diren pertsonen kopuruaren igoerarekin batera. Errolda eskubidea ere funtsezko elementua da batez ere langile migratuen kasuan. Etxebizitza ereduaz hausnarketa: Era berean, ez da zalantzarik planteatzean etxebizitza publiko ereduak zein familia-ereduri edo bizikidetzaren ereduri erantzuten dion. Erantzuten diote bikote batek eta bi seme-alabek osatzen ez duten bizikidetzaren unitateei? Gure gizartea askotarikoa da, eta uste dugu botere publikoaren ardura dela etxebizitzak espazio komunekin, ekipamendu kolektiboekin kudeaketarekin, familia mota ezberdinentzat eta abar prestatzea. Are gehiago kontuan izanik etxebizitza beharrezkoak adierazten dituzten artean aurki ditzakegula ama eta seme-alabak/ek osaturiko bizikidetzaren unitateak, bakarrik bizi diren adineko pertsonak eta **abar.(LAB Sindikatua)**

2,2

Udalen iritzi eta ekarpenak

Jasotako inprimakiak

- Alkizako Udala
- Villabona-Amasako Udala
- Anoetako Udala
- Añanako Udala
- Arakaldoko Udala
- Arrankudiaga-Zolloko Udala
- Arrigorriagako Udala
- Astigarragako Udala
- Balmasedako Udala
- Barakaldoko Udala
- Bergarako Udala
- Berriatuko Udala
- Berrobiko Udala
- Donemiliagako Udala
- Durangoko Udala
- Eibarko Udala
- Elorrioko Udala
- Eskoriatzako Udala
- Hernaniko Udala
- Ibarrangeluko Udala
- Kuartangoko Udala
- Lagrango Udala
- Lapuebla de Labarcako Udala
- Larrabetzuko Udala
- Leaburuko Udala (Txarama)
- Mallabiko Udala
- Mendatako Udala
- Mendexako Udala
- Oiartzungo Udala
- Oñatiko Udala
- Urduñako Udala
- Ormaiztegiko Udala
- Orozkoko Udala
- Oiongo Udala
- Errenteriko Udala
- Santurtziko Udala
- Sopuertako Udala
- Urretxuko Udala
- Zaldibiako Udala
- Zarauzko Udala
- Ziortza-Bolibarko Udala
- Zumarragako Udala

1- ITUNAREN EGOKITASUN OROKORRA

Zein neurritan iruditzen zaizu egokia Etxebizitzaren aldeko Itun Sozial bat lortzea Euskadin?

Oso baxua edo batere ez	%3
Baxua	%0
Altua	%69
Oso altua	%29

Planteatutako denbora-horizonteari dagokionez (2036), nola baloratzen duzu?

Egokia	%31
Ez oso egokia, zabalegia iruditzen zaidalako eta denborazko irismen txikiagoa proposatuko nukeelako.	%66
Ez oso egokia, laburregia iruditzen zaidalako eta denborazko irismen handiagoa proposatuko nukeelako.	%3

Itunari dagokionez, Etxebizitza Sailburuordetzak egiten duen hasierako proposamenaren elementu hauekin zein neurritan zaude ados?

	Oso baxua	Baxua	Altua	Oso altua
Helburu edo helburu handiak eta epe luzerako lehentasunezko jarduera-ildoak adosteko ikuspegi orokorra, eta horiek lortzearen inguruan eragile garrantzitsu guztiak inplikatzeari	%0	%3	%71	%26
Hasierako dokumentuari zein lan-prozesuari garrantzia emateko ideia, horren bidez Itunean zehaztutakoa garatu beharko baita	%0	%3	%79	%18

2- HELBURUAK ETA METAK

Zer neurritan zaude ados Itunaren helburu nagusia ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA, ESKUBIDE-ERAGINKOR GISA ADOSTEA izatearekin?

Oso baxua edo batere ez	%0
Baxua	%0
Altua	%68
Oso altua	%32



ÑABARDURAK

- Herri txikien ezaugarriak eta kohesio territoriala kontuan hartu. Helburuak berdinak izan arren, errealitatea ezberdina da (**Ibarrangeluko Udala**)
- Orokorrean etxebizitzaren parke hutsarekin amaitzeko politikak helburu nagusietan egon beharko lukeela iruditzen zait. Fiskalitate pizgarria aipatzeaz gain, etxe hutsak ez egoteko derrigortasunak eta erabakiak indarra eduki behar dute, baita berauek egokitzeko politikak ere. Dimentsio sozialari dagokionez, gizarte zerbitzuetako perfilen azterketa bat ere beharrezkoa da, izan ere, ez badira kontuan hartzen, politika askotara ezin izango dute iritsi perfil batzuetako herritarrak. Eraikuntza sektorea eraikitzeaz gain, erreforma eta birgaitzeetara bideratu behar da, lehen aipatutako etxe hutsen erabilera, etxe zaharrak erabilgarri bihurtzera bideratuz. (**Oiartzuneko Udala**)
- Eusko Jaurlaritzak 7 urte daramatza etxebizitzarako eskubidea egikaritu gabe eta horretarako ordezeko prestazioak ematen. Ondorioz, gora egiten dute alokairu libreko merkatuko prezioek (**Anoetako Udala, Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Arrigorriagako Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Astigarragako Udala, Oñatiko Udala, Durangoko Udala, Arrankudiaga-Zolloko Udala**)
- Etxebizitzarekin arazo sozial larri dugu, lehenbailehen behar ditugu neurri eraginkorrak. (**Errenteriko Udala**)
- 2015ko Legea aprobatu zenetik ez da etxebizitza-eskubideen dekreturik egin, beraz, ez dago Lege honen garapenik eta horregaitik gauzak egiten ari dira berdin. honek eragina zuzena dauka merkatu pribatuetako prezioetan. (**Orduñako Udala**)
- Babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza oso urria da. Jendea etxebizitza bat lortzeko merkatuaren gora beheraren menpean dago. (**Leaburu-Txaramako Udala**)
- Arazorik gabeko etxebizitza librearen aldeko ituna. Behar duenarentzako etxebizitza babestuaren aldeko ituna: dirua irabazten hasiz gero, etxebizitza babestutik atera behar du (**Mendexako Udala**)
- 7 urte daramatza Eusko Jaurlaritzak etxebizitza-eskubideen dekretoa egin gabe (**Larrabetzuko Udala**)

Zer neurritan zaude ados 2036an alokatzeko eskaintza publikoa Euskadiko etxebizitza nagusien %5ean egotearen xedearekin, alokairuko etxebizitza eskuragarrien parke publikotik 26.000 etxebizitzatik 50.000 etxebizitzara pasatuta?

Oso baxuak edo batere ez	%0
Baxua	%9
Altua	%75
Oso altua	%16




ÑABARDURAK

- Etxebizitza horiek nolakoak izango dira? Berriak, etxe hutsak eskuratzeko politika bat egongo da? Zehaztasun gehiago beharko litzateke, edo helburu zehatzagoak. **(Oartzuneko Udala)**
- Ez zait helburu anbiziotsua iruditzen, askoz gehiago lortu behar da etxebizitza benetako eskubidea izan dadin. Alokairuaren kultura askoz gehiago sustatu behar da herritarren artean. **(Amasa-Villabonako Udala)**
- Niri iruditzen zait etxebizitzaren kopuruari dagokionez helburu anbiziotsuagoak jarri behar direla, arazoari benetan erantzuna garaiz eta eraginkortasunez eman nahi bazaio. % 10a gutxienez. Badakit inbertsio handia behar dela, baina hori ez da arazoa borondate politiko baldin badago. Dirutzak inbertitzen ari dira herri honetan ikuspegi sozialetik horren beharrezkoak ez diren azpiegituretan; eskubide bat betetzera ez datozenak. Etxebizitza eskubidea da, ezta? **(Alkizako Udala)**
- Ondo legoke parke publikoa 50.000ra igotzea **(Anoetako Udala)**
- Parke publikoa ez da 26.000koa. Ez da logikoa Bizigune eta ASAP programetakoak (7.000) eta pribatuak (3.000) parke publikokotzat jotzea. Ondo legoke parke publikokoak (berezkoak, Jauriaritzarenak edo udalenak) 50.000 izatea **(Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Arrigorriagako Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Durangoko Udala, Arrankudiaga-Zolloko Udala)**
- Ez dakit zein punturaino parke publikoa 26.000koa den, ezin dira sartu pribatuak direnak eta programa desberdinak erabiliz publiko bezala eskeintzen diren etxebizitzak Benetan 50.000 publikoak iztea behar dira. Guztiak. Beraz, agian gehiago izan beharko ziren. Hausnarketa hori egin behar da. **(Orduñako Udala)**
- Arrazoizko prezioko alokairu-errentak errenta txikiak dituztenentzat **(Mendexako Udala)**
- Ondo legoke parke publikoa (Eusko Jauriaritzak-Udalak) 50.000 izatea **(Larrabetzuko Udala)**
- Parke publikoa ez da 26.000koa ondo legoke parke publikokoak (propioak, Jauriaritzarenak zein Udalenak) 50.000 izatea. **(Astigarragako Udala)**
- Ez dugu daturik udalerriko alokairu-merkatuari buruz **(Oiongo Udala)**
- **2600 horiek ezin ditugu publikotzat konideratu (bizigune+ASAP) 50000 publiko horiek eusko jauriaritza+udaleak izatea ondo legoke. (Oñatiko Udala)**
- Zenbakiez gain beste faktore asko daude baloratu beharrekoak eta momentuz ez gaude aurreko galdera erantzuteko moduan. **(Zaldibiako Udala)**

Zer neurritan zaude ados 2036an BABES PUBLIKO IRAUNKORREKO ETXEBIZITZEN PARKEA, EUSKADIN DAUDEN ETXEBIZITZA NAGUSIEN %10,8ra iristea, 2021ean %7,7koa izanda, hau da, 70.000 etxebizitza izatetik, 108.000 izatera igaroz?

Oso baxua edo batere ez	%38
Baxua	%12
Altua	%38
Oso altua	%12




ÑABARDURAK

- Errealitate ezberdinak kontuan hartu, beharrak egokitzeko. (**Ibarrangeluko Udala**)
- Etxebizitza hauen erabileraren inguruko jarraipenari dagokion aipamena botatzen dut faltan. (**Oiartzuneko Udala**)
- Etxebizitzaren arazoak anbizio gehiago eskatzen du. (**Amasa-Villabonako Udala**)
- Aurreko paragrafoan argudiatu dut zergatia. (**Alkizako Udala**)
- Horrek esan nahi du 38.000 eraiki nahi direla; ken 24.000 alokairukoak (aurreko puntuak): babes publikoko saltzeko 14.000 etxebizitza. Eraiki nahi diren 38.000 etxe horien erdiak gutxienez (19.000) alokairu iraunkorrekoak eta babestukoak izango balira soilik izango litzateke onargarria. (**Anoetako Udala, Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Larrabetzuko Udala, Oñatiko Udala, Durangoko Udala, Arrankudiaga-Zolloko Udala**)
- Etxebizitzaren babes publikoa behar handiena dutenentzat (**Mendexako Udala**)
- Indar eta baliabide publiko guztiak alokairuan jarri behar dira. Batetik, eraikitzen direnen artean, nagusitaun osoa izan behar dute alokairuko etxeak. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak lehentasunezko ersoketa-eskubideak gauzatzen hasi behar da. (**Astigarragako Udala**)
- Babes publiko iraunkorreko etxebizitzaren kontzeptua berrikusi egin behar da. Ez da erakargarria eta ez du etxebizitza lortzen laguntzen onuradunak zozketa bidez esleitzea. Hausnarketa orokorra egin behar da babes publikoko etxebizitza jabetzan hartzeko ereduaren inguruan. Hartzailearen profila, higiezinen merkatua, etab. (**Oiongo Udala**)
- Zenbakiez gain beste faktore asko daude baloratu beharrekoak eta momentuz ez gaude aurreko galdera erantzuteko moduan. (**Zaldibiako Udala**)

Zein neurritan zaude ados GURE URTEKO BIRGAITZE-INDIZEA ERAIKINEN GUZTIZKOAREN %1,5ETIK URTEKO %3RA PASATZEAREN xedearekin?

Oso baxua edo batere ez	%0
Baxua	%9
Altua	%67
Oso altua	%24



ÑABARDURAK

- Kopurua definitzerakoan eta eraikinen birgaitzerako laguntzak ematen direnean, baldintzak jarri beharko lirakekeela iruditzen zait: tartean etxe hutsa baldin badago, alokairura bideratzera behartuz, adibidez. (**Oiartzuneko Udala**)
- Ez dakit zer balio duen benetan datu horrek. (**Alkizako Udala**)
- Gaur egungo zaharberitze-indizea guztizkoaren % 1,5ekoa da (1 milioi baino gehixeago daude: urtean ez dira 16.000 etxe zaharberitzen. 2020an 7.500 soilik zaharberitu ziren, Plan Gidariaren arabera). Ondo legoke urtean etxe guztien % 3 zaharberitzea, baina zaila dirudi (**Anoetako Udala, Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Astigarragako Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Durangoko Udala, Arrankudiaga-Zolloko Udala**)
- Hala ere zeharberitze indizea ez da etxe guztien %1´5era heltzen gaur egun, behintzat dautak ikusten badira. Agian laguntza gehiago eman behar ziren indize horiek lortzeko. Ondo ikusten dugu bikoiztea vaina gaur egun ez badira betetzen ari begiratu beharko da zer aldatu behar den. (**Orduñako Udala**)
- Urtean, etxe guztien %3 eraberritzea ondo legoke (**Larrabetzuko Udala**)
- Gure udalerrian, kalitate txikiko etxebizitza-parke zabala dago, baita erabat utzita dauden eta jabeen mantentze-lanik jasotzen ez duten etxadi eraikiak ere. Etxebizitzari buruzko erabaki guztiek eraikinak birgaitzearen eta hiri-berronertzearen inguruan egon behar dute ardaztuta, berriak garatzera daramaten erabakiak hartu aurretik. Bi arrazoi daude: gure herriguneeen nortasuna zaintzea, eta lurzorua garapen berriekin ez xahutzea. Hau da, auzo berriak sortu aurretik eremu habitatuak begiratzea eta leheneratzea (**Oiongo Udala**)
- Zenbakiez gain beste faktore asko daude baloratu beharrekoak eta momentuz ez gaude aurreko galdera erantzuteko moduan. (**Zaldibiako Udala**)

Adierazi zure ustez Itunean sartu behar litzatekeen **BESTE EDOZEIN XEDE**

- Herri txikien bizi iraupena neurri batean bere etxebizitzaren politikan oinarritzen da. Kudeaketa eta finantziarioan laguntzak. **(Ibarrangeluko Udala)**
- Etxebizitza hutsak merkaturatzea oso garrantzitsua da eta ez zaio garrantzi hori aitortzen. **(Amasa-Villabonako Udala)**
- Landa-herri txikien beharrez eta ezaugarri espezifikoak aintzat hartzea **(Alkizako Udala)**
- Berezko alokairu sozialeko parke publikoa zabaltzeko premia larria (Jaurilaritzarena edo udalena). Gainera, eta norabide berean, beste helburu garrantzitsu bat ordeztu prestazioetan oinarritutako sistema gaitztea izan behar litzateke **(Anoetako Udala, Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Arrigorriagako Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Durangoko Udala, Arrankudiaga-Zolloko Udala)**
- Alokairu sozialeko parke publiko propioa zabaltzea ezinbestekoa eta lehentasunezkoa izan behar da. **(Erreteriko Udala)**
- Etxebizitzari dagokionez herri txikietan (5.000 biztaletik beherakoak) egiten den eskaintza publikoa handitzea; biztanle galera handia ematen ari da eremu honetan, eta gutxitan ikusten dugu eskaintza publikoa horrelako herrietan. Desoreka hau konpontzeko diskriminazio positiboa beharko genuke. **(Ormaiztegi Udala)**
- Etxebizitzaren arloko lurralde-oreka handiagoa lortzea, landagunearen idiosinkrasia kontuan hartuta **(Kuartangoko Udala)**
- Alokairu sozialako parke publiko propioa eta handiagoa behar dugu. Pixkanaka-pixkanaka joan behar da modeloa aldatzen. prestazio gutxiago emena pribatuak dire etxebizitzak alokatzeko eta gehigo publikoak izatea. **(Orduñako Udala)**
- Alokairu sozialeko parke publiko propioa zabaltzeko behar larria. **(Larrabetzuko Udala)**
- Lehentasunezko erosketa-eskubideak gauzatzen hasi behar da Eusko Jaurilaritza edo bestela udalek erosketa hauek gauzatzeko dirulaguntza pakete handi bat martxan jarri behar da. Alokairuko etxebizitzaren parkea areagotzea erabat premiazkoa da. Bestetik, alokairuetatik jasotzen den diru guttia , gutxienez, alokairua sustatzera legez ezarri behar da. **(Astigarragako Udala)**
- Etxebizitza ereduak eta hauen kokapenak gakoak dira. Etxeak, auzoak eta herriak bizigarri izan behar dira, kolektiboa, zaintza eta bizitza erraztuz. Hiriguneak gehiegi hazi dira. **(Zaldibiako Udala)**

3- JARDUERA-ILDO ETA -JARRAIBIDEAK

Zer neurritan zaude ados proposatutako jarduera-ildoekin?

	Oso baxua	Baxua	Altua	Oso altua
Inbertsio handiagoa etxebizitza, fiskalitate pizgarri batean oinarrituta	%0	%6	%88	%6
Etxebizitza-politikaren dimentsio sozialean sakontzen jarraitzea	%0	%6	%68	%26
Etxebizitza udal agenda estrategikoan sartzea orokortzea	%0	%3	%76	%21
Eraikuntzaren sektore erakargarria, lehiakorra eta berritzailea eratzea	%0	%15	%65	%21
Datuen inteligentzia eta ebaluazio aurreratua	%0	%9	%74	%18
Inplikazioa eta lankidetzaren publiko-pribatu-soziala	%0	%52	%30	%18

Adierazi Itunean sartzeko PROPOSATUKO ZENUKEEN BESTE EDOZEIN JARDUERA-ILDO

- Alokairu pribatu duin eta jasangarrirako politikak eratzea. Helburua izango litzateke alokairu mota hau ez izatea mugagabea, fiskalitatearekin lotutako neurriak ezartzea, Foru Aldundiekin elkarlanean politikak bideratzea... **(Oiertzunekeo Udala)**
- Ez dut ikusten fiskalitate pizgarriak egokiak direnik, kontrakoa bai ordea, fiskalitate-zigorak etxebizitza hutsak merkatuan jartzen ez dutenei. Eta sustapenak eta titularitateak soil-soilik publikoak izan behar dutenik ez dut dudarik. Publiko-pribatua kasu honetan azeria oilategian sartzea da. **(Alkizako Udala)**
- Ildo horien zehaztapena zein izango litzatekeen ikustea ere garrantzitsua da, aldekotasuna edo kontrakotasuna NOLAKOTASUNEAN egon daiteke. Ikusi behar beraz, horien garapena nola planteatzen den. **(Errenteriko Udala)**
- Berez, ildoak ez daude gaizki, baina funtsezkoa da jakitea ildo horiek nola zehaztuko diren. Adibidez, fiskaliterako pizgarria berez ez dago gaizki, baina kontzeptu horren barruan al dago kenkariak jasotzen jarraitzea etxeak erostearen truke? **(Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Arrigorriagako Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Durangoko Udala, Arrankudiaga-Zolloko Udala)**
- Udal administrazioekin lankidetzaren bultzatu. Udaletatik asko egin daiteke. oso ondo ezagutzen direlako udalaren beharraz eta aukerak. Laguntza gehiago eman behar zaie **(Orduñako Udala)**
- Errenta txikiak **(Mendexako Udala)**
- Ildoa ez dago gaizki. Nola zahaztuko diran esatea funtsezkoa da. **(Larrabetzuko Udala)**
- Lehentasunezko erosketa eskubideak gauzatu behar dira. Zuzenean Eusko Jaurlaritzak edo Udalak Eusko Jaurlaritzaren finantzazioarekin. Etxe berriak eraiki baino lehenm eraikita dauden erosketako BOEI alokairu pasara behar dira. Hiri-eremu eta urbanizagarrietan alokairu bideratuko partzelen areagotzea derrigortu behar da. Erosketarako pizkarri fiskalak ezabatu behar dira. **(Astigarragako Udala)**

UDAL-AGENDA ESTRATEGIKOAN ETXEBIZITZA ORO HAR SARTZEA izeneko jarduera-ildoari dagokionez, adierazi hura eraginkortasunez garatzeko lehentasunezko zatitza josten duzun beste edozein jarraibide

- Udalen egoera oso ezberdina da, herri txikienetatik handienetara egokitzeko beharra dago. Etxebizitzen ari garenean, landa eremuko baserrien inguruko lanketa ere egin behar da eta lanketa hau lehen sektorearen inguruko politikekin lotuta joan behar dute. **(Oiarzuneko Udala)**
- Udalak funtsez hornitzea udal etxebizitza-parke egokia sor dezaten. **(Alkizako Udala)**
- Beharrezkoa da udalak gehiago inplikatzeko, baina baita Jaurlaritza ere. Hain zuzen ere, oraintxe udal-alkairuko parke propioa (8.000 etxe) Jaurlaritzarena (7.200) baino handixeagoa da. Etxebizitzari buruzko Legearen 5. artikuluko erakunde autonomiadunak koordinatu ahal izango luke lana **(Anoetako Udala, Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Arrigorriagako Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Durangoko Udala, Arrankudiaga-Zolloko Udala)**
- Udalak ardura handiagoak hartu behar baditugu ezinbestekoak izango ditugu baliabideak, eskutik joan behar dute. **(Errenteriko Udala)**
- Landagunean etxebizitza hutsa birgai dadin eta alokairu sozialeko merkatuan jar dadin sustatzea **(Kuartangoko Udala)** Udal txikietan zaila egiten zaigu etxebizitzak ateratzeko suposatzen den dokumentazio dena aurrera ateratzea eta dagokion inbertsioarako dirua izatea. **(Leaburu-Txaramako Udala)**
- Udalak gehiago inplikatzeko beharrezkoa da eta Eusko Jaurlaritza eta Udalen alokairu parke propioa (8.000 etxeak), Eusko Jaurlaritzarena baino handiagoa da. (7.200) **(Larrabetzuko Udala)**
- Udalek etxebizitza politketan ardura badute baina eskumen nagusia Eusko Jaurlaritzarena da. Udal txiki-ertain bati lehentasunezko erosketa-eskubidea gauzatzea esfortzu handiegia da. Horretan Eusko Jaurlaritzak izan behar du lidergo nagusia **(Astigarragako Udala)**
- Eusko Jaurlaritzaren inplikazio handiagoa. **(Oñatiko Udala)**
- Udalei alokairuko etxebizitzak sustatzen laguntzeko baliabideak ematea edo finantzaketa-lerroak ematea **(Urretxuko Udala)**
- Etxebizitza politikak udal mailan: eredu aldaketarako tresnak, esperientzia trukeak, herri txiki-ertain-handiak, udal-laguntzak,... **(Zaldibiako Udala)**

4- PARTAIDETZA-, LANKIDETZA- ETA GOBERNANTZA-EREDUA

Zer neurritan zaude ados proposatutako gobernantza-elementuekin?

	Oso baxua	Baxua	Altua	Oso altua
Etxebizitzaren Foroa sortzea eta dinamizatzea	%0	%3	%88	%9
Herritarrekin aktiboki entzuteko eta parte hartzeko dinamikak sartzea	%0	%0	%74	%26
Finkatutako helburuen aurrerapenari buruzko kontuak emateko urteko txostena	%0	%0	%91	%9

Adierazi proposatutako partaidetza-, lankidetz- eta gobernantza-ereduaren inguruko edozein ñabardura edo alternatiba

- Partehartzea eraginkorra izateko bitarteko egokiak jarri (**Ibarrangeluko Udala**)
- Gizarte zerbitzuetako langileen partaidetza beren-beregi landu beharko litzateke beharra duten pertsonen profila lantzeko, ezinbestekoa izango baita errealitate horri nola erantzun jakiteko (**Oiartzuneko Udala**)
- Etxebizitzari buruzko Legearen 5. artikuluko erakunde autonomiadunak koordinatu ahal izango luke Jaurlaritzaren eta udalen arteko lana. Une honetan, ez dago oso argi zein lurralde-irizpiderekin egiten diren hitzarmenak. (**Anoetako Udala, Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Arrigorriagako Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Astigarragako Udala, Durangoko Udala, Arrankudiagako Udala**)
- 1. Librea 2. Kooperatiboa (**Mendexako Udala**)
- Etxebizitza, lege 5. artikuluko erakunde autonomak EJ eta udalen arteko lana kordinatuko leuke. (**Larrabetzuko Udala**)
- Etxebizitza Legeko 5. artikuluko erakunde autonomoak Jaurlaritzaren eta Udalen arteko lana koordinatu lezake. Jaurlaritzak azaldu beharko luke zergatik ez duen erabili nahi. (**Astigarragako Udala**)
- Herritarren partaidetza sustatzeko udalen aliantza garrantzitsua izan daiteke. Halere, urteetan eraman diren etxebizitza politika okerrek, espekulazioak eta agintarien-erakuntza enpresa haundien-banketxeen jarrerak asko zaildu du herritarrek gai honekiko izan dezaketen ekimena. (**Zaldibiako Udala**)

5- ITUNENA PARTE HARTZEA

Itunaren garapenean aktiboki parte hartzea, Itunean parte hartzea dela ulertuz, zer aukera-maila ikusten duzu ordezkatzeko duzun erakundeak Itunean parte hartzeko?

Oso baxua edo batere ez	%0
Baxua	%15
Altua	%76
Oso altua	%9



AURREKO ERANTZUNA TXIKIA EDO OSO TXIKIA IZAN BADA, ADIERAZI ZEIN ELEMENTU JASO BEHAR LIRATEKEEN ITUNAREN AZKEN BERTSIOAN ZURE ERAKUNDEA HAREN PARTE IZAN DADIN

- 1. Librea: bat ere ez 2. Kooperatiboa: Lankidetzeta eta informazioa (**Mendexako Udala**)
- Zalantzarik gabe, biztanle gehieneko udalerriek adierazitako beharrei erantzuteko garatu behar da Ituna (**Oiongo Udala**)
- Etxebizitzaren ikuspegi mugatua zabaldu beharko luke: etxebizitza ez da lo egiteko leku soil bat. Etxeak bizigarriak izan behar dira, baina etxe horiek kokatuta dauden herri eta auzoak ere bai. Kaleko komertzioa, eskolak, zerbitzuak, lantokiak, mugikortasuna, bizilagunen arteko harremana, naturguneak, jolasguneak, elkarguneak... Zenbakiak eta etxe kopuruak soilik badira xede oker gabilta. Politika errealak behar dira. Herri askotan esperientzia politak ari dira gauzatzen eta aditu asko daude eredu berrien eta eraldaketaren alde lanean. Baketxe eta eraikuntza enpresen interesak mugatu eta herrien eta herritarren bizigarritasunari eman behar zaio lehentasuna. Hori egiteko borondate politiko zintzoa agertu beharko luke itunak. (**Zaldibiako Udala**)

6.- IRUZKIN OSAGARRIAK

- Aipatutakoak beste puntuetan: 2. etxebizitzaren presioa, herri txikien ezaugarriak, kohesio territoriala. **(Ibarrangeluko Udala)**
- Interes altua izanik ere, gure gizartearen arazo larrienetakoa delako etxebizitza duin eta egokia lortzea, espero dut benetako herri-ekimen indartsua eta helburu anbiziotsuekin eratzeara. Bestela, ez kontatu nirekin. Hitz ederrez nekatuta nago **(Alkizako Udala)**
- Aldatu egin behar da Jauriaritzak gutxienez 2008tik abian duen elkarlan publiko eta pribatua. Ezin da sustatzaile pribatuei diruzko laguntza publikoak ematen jarraitu denboraldi jakin batez beren etxeak alokairuan jar ditzaten. Alokairu jasagarria sustatu behar litzateke **(Anoetako Udala, Berriatuko Udala, Arakaldoko Udala, Donemiliagako Udala, Elorrioko Udala, Arrigorriagako Udala, Hernaniko Udala, Bergarako Udala, Larrabetzuko Udala, Astigarragako Udala, Durangoko Udala, Arrankudiagako Udala)**
- Kezka handia eragiten digu lankidetzaren publiko-pribatuaz hitz egiteak etxebizitza bezalako oinarritzko premia bati buruz ari garenean eta lankidetzaren horren ajeak pairatzen ari gara, besteak beste, gure udalerrian. Eredu horri alternatibak bilatu behar zaizkio. Alokairu-prezioak mugatzen ere asmatu behar genuke. **(Erreteriko Udala)**
- Eraikuntzarekin edo etxebizitzaren alokairuarekin erlazionatutako edozein gaik okupatzaileen errenten pean egon behar du; errentek gora egiten badute, okupatzaileek etxebizitzak utzi behar dituzte errenta txikiagoak dituztenen alde **(Mendexako Udala)**
- Itunak ez dezala ahaztu hiri-berronartzea nabarmentzea, herrigune finkatuei begiratzea. Eraikuntzaren sektore profesionalaren egoera kontuan hartzea, haren egoera teknologikoa. Eta helburu xumeak proposa ditzala **(Oiongo Udala)**

3

Itunaren behin betiko dokumentuan txertatutako ekarpenak

Itunaren behin betiko dokumentuan txertatutako ekarpenak

Ekarpen guztiak bildu eta aztertu ondoren, adostasun-maila handiagoa zutenak Itunaren behin betiko testuan txertatu dira.

Nabarmendu behar da **ekarpen asko jotzen direla baliozkotzat, baina, gure ustez, haien zehaztasun-maila Ituna prestatzean jaso behar den goi-mailako planteamendu estrategikotik harago doa. Proposamen horiek hausnarketa- eta eztabaida-material gisa erabiliko dira Ituna ezartzeko prozesuan.**

PARTAIDETZA-PROZESUAN BILDU ETA BEHIN BETIKO DOKUMENTUAN TXERTATU DIREN ALDERDIAK

- Eraikuntzaren sektorearen barruan industrializazioan, prestakuntzan, talentuan eta beste eremu batzuetan lan egitearen garrantzia indartzea.
- Etxerik gabekoen problematika zehazki aipatzea.
- Familia ugarietzako bizitzeko irtenbideak zehazki aipatzea.
- Lehen xede kuantitatiboan eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspena eta etxebizitza hutsak mobilizatzekoa zehaztea.
- Xede kuantitatiboak lurraldeka bereiztea.
- Egoera ahulean dauden taldeen bizitegi-beharrei erantzuteko erakunde sozialekiko lankidetzaren indar dadin zehazki aipatzea.
- Etxebizitzaren kalitatea zehazki aipatzea.
- Etxebizitza babestuaren helburuak garatzeko lurzoru publikoa estrategikoki erreserbatzeari lotutako jarraibide bat txertatzea.
- Etxebizitza-politikak herrialdearen garapen sozialeko euskarri gisa duen garrantzia zehazki aipatzea.
- Irisingarritasun unibertsala zehazki aipatzea.

4

Ondorioak

Ondorioak

1. **Ikuspegi kuantitatibotik, oso garrantzitsua izan da** Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala (2022-2036) prestatzeko **garatutako partaidetza-prozesua**. 97 eragilek tailer eta bileretan parte hartu dute, eta 87k idatzizko ekarpenak egin dituzte.
2. **la guztiek esan dute egokia dela Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala egitea**; alegia, parte hartu duten eragileen % 97k. Halaber, adostasun-maila handia dago Itunaren helmen kontzeptualari dagokionez. Denbora-helmenari dagokionez, eragile gehienek uste dute egokia dela, baina ez hiri-lurzorurik ez duten udalerriek, zeinek denbora-helmen txikiagoa nahiko bailukete.
3. **Itunaren helburu orokorrekiko adostasun-maila (etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzea) oso handia da** (% 90 oro har, eta % 100a hiri-lurzorua ez duten udalerrien kasuan). Halaber, babes handia dute proposatutako xede kuantitatiboek: arrazoizko prezioko alokairuaren eskaintza publikoa, babes publiko iraunkorreko etxebizitzaren parkea eta urteko birgaikuntza-indizea handitzea.
4. **Halaber, adostasun-maila handia dago proposatutako jarduera-ildoekin**, ñabardura bakarrarekin: hiri-lurzorua ez duten udal batzuk soilik daude ados haiekin, inplikazio eta lankidetzaren publikoari, pribatuari eta sozialari dagokionez erantzun baitiote galdetegiari.
5. **Horrez gain, oso balorazio altua jaso dute proposatutako gobernantza-elementuek.**
6. **Ekarpen ugari jaso dira. Gehienetan, zehazte- eta sakontze-kontuak dira, eta Ituna ezartzeko fasearekin lotuta daude, hasierako konfigurazioarekin baino. Hori dela eta, kontu horiek Itunaren beraren garapenean erabiliko dira.** Estrategikoagoak diren (eta, beraz, Ituna idaztean txertatu diren) alderdiei dagokienez, badira aipagarri batzuk; esaterako, eraikuntzaren sektorearekin lan egitearen garrantzia, etxerik gabekoen arazoa, familia ugariak eta beste alderdi batzuk zehazki aipatzea, Ituneko xede kuantitatiboak zehaztea eta lurraldeka bereiztea, eta erakunde sozialekin elkarlanean aritzeari, etxebizitzaren kalitatea hobetzeko helburuari, irisgarritasun unibertsalari eta etxebizitza-politikak herrialdearen garapen sozialeko euskarri gisa duen garrantziari buruzko erreferentziak sartzeari/indartzea. Etxebizitza babestuaren helburuak garatzeko lurzoru publikoaren erreserba estrategiko bat eratzeari lotutako jarraibide zehatz bat ere txertatu da.